1919·2019

ARGIA

Herritarrak konponbide eske

EUSKAL PRESO POLITIKOAK

#2.628 | 2019/01/20 | 3,90 €

Itoizko urtegiak eragindako dolua dokumentalean jasoz

12 | MADDI BARBER

Gaurko kazetaritzari kritika zorrotza

30 | MARIANO FERRER ETA MIRENTXU PURROY

Giza eskubideen defentsan borroka egiteagatik arriskuan

34 | NOHEMÍ PÉREZ

DATORREN ASTEKO ARGIAREKIN...

LARRUN # 238

HILABETEKARI MONOGRAFIKOA

SEXU HEZIKETA

ARGIA.EUS/LARRUN

ARGIA

2.628 zenbakia | Urtarrilak 20, 2019

Panorama

04 | ASTEKO ARGAZKIA
06 | AKTUALITATEA
07 | GAIZKI ERRANKA
07 | EZ HANKA EZ BURU
08 | EKONOMIAREN TALAIAN

AZALEKO ARGAZKIA: DANI BLANCO

Iritziak

17 | IRATI LABAIEN EGIGUREN
18 | SONIA GONZALEZ
19 | ANDONI MUJIKA ULAZIA
19 | CASTILLO SUAREZ
20 | JOXERRA AIZPURUA

Finkoak

38 | BIZI BARATZEA
40 | ARGIA KOMUNITATEA
42 | DENBORAREN MAKINA
48 | KULTUR-KRITIKAK
50 | ZUZENEKO EMANALDIA
51 | DENBORA-PASAK
52 | ARGI-KONTRA: MAIALEN MORENO
54 | BERANDUEGI

DANI BLANCO

12 | **MADDI BARBER**
Reyes Ilintxetak Lakabe herri okupatuan jaiotako gazte hau elkarrizketatu du.

Elkarrizketak eta erreportajeak

10 | NET HURBIL
Nolakoa izan liteke Laugarren Industria Iraultzako gerra?
Pello Zubiria Kamino

28 | POLITIKA
Argazki-erreportajea: Presoen aldeko oihua
Dani Blanco eta Ibai Arrieta

28 | TEKNOLOGIA BURUJABETZA
Mastodonek ere euskaraz egiten du
Onintza Irureta Azkune

30 | KAZETARITZA
Mirentxu Purroy eta Mariano Ferrer: independentziaren bermea
Ivan Gimenez, *Alda* aldizkaria

34 | NAZIOARTEA | NOHEMÍ PÉREZ
"Luze iraun dezakeen arren, borroka mantendu behar dugu"
Amaia Lekunberri Ansola

43 | LITERATURA
Maiteminduta ote dago Michel Houellebecq?
Gorka Bereziartua Mitxelena

46 | KILLERKUME
"Gure hizkuntzaren barruko hizkuntza berritu behar dugu etengabe"
Ibon Rodriguez

OLATUKOOP
EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZAK DIRUZ LAGUNDUA)

Jabetza
Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea
Lehendakaria
Bego Zuza
Erredakzioa
Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Gorka Peñagarikano, Iñigo Igartua, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona
Diseinua
Maitane Gartziandia
Argazkilaria
Dani Blanco
Produkzioa eta inprimaketa
Antza S.A.L.
Administrazioa:
Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte
Salmenta
Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta
Idazkaritza
Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena
Asier Iturralde
Informatika
Iametza interaktiboa, S.L.
Lege gordailua
SS 837-2012
ISSN
0213-909X
Batzorde parekidea
72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Gipuzkoa
Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria
Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa
Xalbardin baita. 64122 Urruña
Nafarroa
Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina
31001 Iruñea

Posta elektronikoak
komertzial@argia.eus
harpide@argia.eus

Telefonoa
943371545

Ametzagaiña taldeko kidea da ARGIA honako enpresekin batera:
Antza inprimategia
Iametza komunikazio zerbitzuak
Adur informatika zerbitzuak

antza KOMUNIKAZIO GRAFIKOA
iametza interaktiboa
ADUR software productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.

CC BY SA

LAB
DESPED

ALDAKETARIK EZ

ARGAZKIA I **JAGOBA MANTEROLA (FOKU)**
TESTUA I **AXIER LOPEZ**

Eguneko 13 ordu baino gehiagoko lanaldiak, jai egunak barne. Osagarririk ez opor, baja edo gauean lan egiteagatik. Prekarietatea ordainsari langile migratzaileentzat. Eta grebari ekin diote. Ez gara ari Almeriako "plastikozko itsasoko" egoeraz, Azkoienen gaude, Nafarroako Gobernuak diru publikoz lagundutako enpresa batean. Urtetan Nafarroako landa eremuan izan den gatazkarik handiena da Huertas de Peraltakoa. Eta momentuz, Aldaketaren Gobernuak patronalaren ildoa babestu eta gatazkak bideratzeko Barcinaren garaiko errezeta ezagunari ekin dio: Foru Poliziaren makilakadak. Izan langileentzat ala gune autogestionatu bateko kideentzat.

Hala nahi duten guraso elkarteek eskola jantokiak zuzenean kudeatzea ahalbidetuko du Eusko Jaurlaritzak

'GURE PLATERA GURE AUKERA' EKIMENAK ARGI UTZI NAHI DU EUSKO JAURLARITZAREN ALDEBAKARREKO PROPOSAMENA DELA ETA EZ EKIMEN HONEKIN ETA BERTAN PARTE HARTZEN DUTEN ERAKUNDEEKIN ADOSTUTAKOA

EHIGE

HEZKUNTZA SAILAK FAMILIAK ETA GIZARTEA NAHASTU DITU, JANTOKIAK GESTIONATZEKO MODU BERRI BAT AURKEZTUZ BAINA BALDINTZAK ETA FINANTZAZIOA ZEHAZTU GABE

@Arintxu

ZERGATIK BESTELAKO EREDUAN GURASOEK GARATU BEHAR DUTE KUDEAKETA GUZTIA, ETA ALDIZ GAUR EGUNGO EREDUAN HEZKUNTZA SAILA ETA IKASTETXEETATIK BIDERATZEN DA KUDEAKETA? BEHARREZKOA DEN ARAUDI ALDAKETAN, ERABAKITZEKO ESKUBIDEA EMAN BEHARKO LITZATEKE. EREDU GUZTIAK BALDINTZA BERBERETAN

@RebekaUbera

EKINKLIK

Maravillas gaztetxea itxi dute foruzainek

ARGIA @argia

Urtarrilaren 8 goizeko 5:00ak aldera sartu ziren foruzainak gaztetxe barrura; ez zegoen inor bertan. Espainiako Poliziak Nabarreria plaza inguru osoa itxi zuen, inor bertaratu ez zedin. Foruzainen hitzetan, gaztetxearen egoera ikuskatzea zuten helburu, bertsio hori bera berretsi zuen Nafarroako Gobernuak: ikuskatzea baino ez zela asmoa. Aldiz, hurrengo egunean gaztetxeko atea porlanez itxi eta bertako materiala atera zuten. Ana Ollo Herritarrekiko Harremanetako kontseilariaren arabera, "teknikariak bertara sartu direnean eraikinean ez zegoen inor, beraz, ez da desalojo bat izan". Alde Zaharreko ekimenak bota egin dituztela salatu dute.

Ixtearen aurka, mobilizazioak egin zituzten asteartean eta asteazkenean. Asteazken iluntzean poliziaren hesietara lapikoekin soinua eginez hurbildu ziren manifestarien kontra egin zuten agenteek, borrekin eta gomazko pilotak jaurtiz. Lanean ari ziren hainbat kazetari ere jo zituen Poliziak.

MANIFESTAZIOA URTARRILAREN 19AN

Manifestazioa deitu dute urtarrilaren 19rako, "Maravillas aurrera" lelopean. Oldarraldian zauritutakoen irudiak eskutan egin zuten prentsaurrekoa Maravillas gaztetxeko kideek. "Txakur gorri zein urdinek" 50 lagun baino gehiago zauritu zituztela salatu zuten. Gaztetxean arriskurik egon ez dela, eta bizilagunei kalterik eragin ez dietela gaineratu zuten. Nafarroako Gobernuak gaztetxeak ordezkatzen zuen ereduaren beldur dela uste dute. Bestalde, Ernai gazte antolakundeak "ardura politiko guztiak argitu eta Beaumont kontseilariaren dimisioa" eskatu du. ●

GAIZKI ERRANKA

Ustekabea

SANTI LEONÉ
@ororostorm

"Pazientea haurdun gelditu eta haur batez erditu zen ustekabean". Norbaitek –gizon batek, pentsatzen dut–, bulego batean, lerro-buru hori idatzi zuen, naski gertatutakoa egoki deskribatzen zuelakoan, egoera begetatiboan hamar urte daramatzan emazteki bati buruz. Bertze bulego batean, bertze norbaitek ez zuen hori publikatzeko oztoporik ikusi. Haurdun gelditu. Ustekabean erditu.

Hori baino lehen, bederatzi hilabetez, ospitale bateko arduradunek ezikusia egin zioten hamar urte egoera begetatiboan daramatzan emazteki horri egunetik egunera sabela puzten zion biziari, akaso bizi hura berez itzali eta erdibidean geldituriko fetua aise, ustekaberik gabe, desagerrarazten ahalko zutelako itxaropen sekretuarekin. Bederatzi hilabetez ondorio logiko bakarra ateratzeari uko egin zioten, zeren hori baino lehen, ospitale hartako gizon batek –edo batzuek– erabaki zuen –edo zuten– egoera begetatiboan zegoen emazteki hura ez zela zaintza behar eta merezi zuen gizaki bat, bere –edo beren– gozamenerako erabiltzen ahal zuen –edo zuten– haragi puska bat baizik. Auskalo noiz erabaki zuten hori. Auskalo zenbatek.

Orain, bertze bulego batean, bertze gizon batek idatzi du –eta egunkari batek argitara eman du– polizia ikertzen ari dela hamar urte egoera begetatiboan daramatzan emazteki hori bortxatua izan ote den. Eta makurrena da beharbada egia dela; alegia, polizia ez dela ikertzen ari nork bortxatu duen, bortxatua izen ote den baizik, hamar urte egoera begetatiboan daramatzan emazteki bat haurdun gelditzeko bertze biderik balitz bezala.

Bortxatu zutenak, ezikusiarena egin zutenak, egoera banalizatu dutenak, auskalo zer eta nola ikertzen ari direnak. Nik ez dakit zehazki zer den bortxaketaren kultura, baina pentsatzen dut, izatekotan, horrelako zer edo zer izan behar duela. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com

"EZ DA DERRIGORREZKOA EUSKARAREN BALORAZIOA TUTERAKO LANPOSTUETARAKO"

ENEKO LARRARTE, TUTERAKO ALKATEA

Tuteran udaltzain lanpostua lortzeko oposizio-lehiaketan, alemana, frantsesa eta ingelesa jakiteak bost puntuko balioa izan zuen, euskararen ezagutza ordea ez zen baloratu. Herriko Defendatzaileak adierazi dio Tuterako Udalari gutxienez euskarak atzerriko hizkuntzen balio berbera izan behar duela, baina alkatearentzat (Izquierda-Ezkerra), "euskara beste hizkuntza batzuk baino gutxiago baloratu izana ez da gaiaren oinarria. Soilik, inolako betebeharrik ez dagoenez, ez da baloratu". Tuterako CUP taldeak gogor salatu du alkatearen jarrera. **2019/01/07**

EKONOMIAREN TALAIAN

“Hokoke, hokoke”

JUAN MARI ARREGI

Hokoke, hokoke. Damun fi oroke. Lan hansaha lau adamuni. Esan nahi du, “nire eskubideak zainetan dudan odola dira. Ez naiz haietaz ahaztuko hiltzen banaute ere”. Arabiarrezko oihu hori ari gara entzuten, ez Almeriako El Ejidoko negutegietan, baizik eta Euskal Herriaren bihotzean, Nafarroan. Ez dirudi arazoa konpontzeko bidean dagoenik eta laugarren astez greban daude Azkoiengo Huerta de Peraltako langileak –denak etorkin marokoarrak, enpresako arduradunak salbu–. 150 pertsonako lantaldea da eta negutegietan letxugak eta barazkiak jasotzen dituzte, bertakoek jadanik ez baitute halako lanik egin nahi. Kaleratuak izan ziren enpresa batzordeko lau kide berriz hartzeko eskatzen dute eta hitzarmena ez betetzeagatik enpresak zor dien 440.000 euroak itzultzeko.

Garrantzitsua da borroka hau, etorkinak baitira beren eskubideak defendatzen dituztenak eta negutegien negozioan sasi-esklabotzan bizi diren beste milaka etorkinentzat eredu izan baitaiteke. Greba honen bilakaera urrats handia izan da –grebalarien manifestazioak eta haiekiko elkartasun adierazpenak–, langile errebindikatzaileenen kontra lurjabe handiek egindako abusuak geldiarazteko eta injustizia eta prekarietatea beste negutegi batzuetara ez zabaltzeko. Etorkinen eta bertakoen artean sortzen ari den elkartasuna ere nabarmentzeko modukoa da: “Bertako edo kanpoko, denok langile klaseko” eta antzeko oihuak entzun ditugu, eta borrokari eusteko erresistentzia kutxa antolatu dute.

Nafarroako Gobernuak ez luke foru poliziaren errepresioarekin erantzun behar, alderantziz, bitartekari lanak egin beharko lituzke, entsaladarako zorroak produzitzen dituen Huerta de Peralta enpresak laguntza publiko handiak jasotzen baititu. *Hokoke, hokoke!* ●

ANALISIA

Errealitatea da paseo bat busean

AMAIA LEKUNBERRI ANSOLA @amaialekunberri

Gasteizko autobus batean, astegun buruzurian eta egun argiz, eraso arrazista bat. Tolestu gabeko patinete baten aitzakian, autobus gidaria jatorri atzerritarreko emakume bati oldartu zitzaion. Txoferrak ez ezik, hainbat bidaiarik ere hitzez eraso zioten: “Hona zatozte eta dena kentzen diguzue”, “emakumea zarelako, bestela egurtuko zintuzkedan”, “militarra naiz, hogei urte daramatzat zu bezalako jendea akabatzen”. Azken esaldiak, emakumearen alaba ukitu bitartean esana, emakumea negarrez aterarazi zuen autobusetik, ez heriotza mehatxurik jaso gabe.

Ez da denboran atzera gehiegi egin behar antzerako gertakari gehiagorekin topo egiteko: hilabete hasieran, Mostolesen (Espainia), Ekuatore Gineako emakume bat eta semea autobusetik kanporatu zituzten “autobusa beteta zioalako”, poliziaren esku-hartze eta guzti. Bidaia txartel berberak lehen eta bigarren mailako herritarrak nola ezberdintzen dituen, atera kontuak. Urrian, Bartzelonatik (Katalunia) abiatzekoa zen Ryanair-en hegazkin batean emakume bat tokiz aldarazi zuen konpainiak, ondoko eserlekuan bidaiatzea zegokion gizonak uko egin baitzion haren alboan esertzeari, “beltza zelako”.

Dirudienez gaur, atzo bezala, autobusek errealitatearen mikrokosmosak izaten jarraitzen dute. 1955ean, arraza-segregazioak autobusetan zurientzako eta beltzentzako espazioak marra batez ezberdintzen zituen garaiko Alabaman, gizon zuri bati bere eserlekua lagatzeari uko egin zion Rosa Parks-ek. Ekintza hark giza-eskubideen aldeko borrokaren ikono bilakatu zuen. Alabaina, esan daiteke uste duguna baino gutxiago aurreratu dugula. Are gehiago: ez ote gabiltza atzerapausoak ematen.

Indartuz doan faxismoari eskutik helduta, migrazio politika gogorrak eta hauek sostengatzen dituen diskurtso xenofoboa ere gorantz ari dira. Mikel Garciak orain bi asteko analisian azpimarratu zuen eran, harresi mentalak sortzen ari gara, fisiko bilakatzen direnak. Han eta hemen, baditugu aipatu Alabamako autobusak erakusten zuen marraren tankerakoak: izan mugetako harresi mardulak edo eguneroko jarrera diskriminatzaileak. Baina hain sendo ageri zaizkigun harresiek badute bista-bistako ahulgunerik: “Horma bat horma bat besterik ez da, apurtu daiteke”, zioen Pantera Beltzetako AssataShakur-ek. Konplizetik baino kamikazetik gehiago duten bidaiariak gehiengoa diren egunean, akaso, autobusak horma jo eta errealitatea irauliko du. ●

KORRIKAREN IBILBIDEA AURKEZTU DU AEK-K

EUSKAL HERRIA. Norbere herritik noiz igaroko den jakiteko irrikaz, askok espero zuten mapa aurkeztu du AEK-k: 21. Korrikaren ibilbidea. Edizio honetan, euskararen aldeko herri-lasterketa apirilaren 4an irtengo da Garestik eta, hamar egunez Euskal Herri osoan ibili ostean, Gasteizen amaituko da, hilaren 14an. Mezuaren irakurketa eta amaierako jai handiaren hasiera eguerdiko 12:30erako aurreikusita dago Andre Maria Zuriaren plazan.

OPUSEN FINANTZAZIOA

12.700.000

euro gastatuko ditu Eusko Jaurlaritzak 2018-2019 ikasturtean, ikasleak sexuz banantzen dituen Opus Deiko sei ikastetxetan, *Gara* egunkariak argitaratu duenez.

3,5 milioi jasoko ditu ikasle bati sexu-abusuak egin izanagatik hamaika urteko zigorra ezarri dioten irakaslea babestu duen Gazteluetako ikastetxeak.

Amurrioko erasoarengatik atxiloturiko polizia ohia, aske behin-behinean

GORKA PEÑAGARIKANO @gorkap34

Baldintzarik eta bermerik ordaindu gabe, epaileak aske utzi du Amurrioko ezker abertzaleko familia baten baserriari tiro egin izanagatik Ertzaintzak atxilotu zuen polizia ohia. Armak legez kanpo edukitzea egotzi dio epaileak.

ERASOA

Urtarrilaren 6an goizeko hamaikak aldera, Amurrioko ezker abertzaleko familia baten baserriari tiro egin zioten. Balak sukaldeko leihoa zeharkatu, kristala hautsi eta horma jo zuen; ez zuen inor zauritu.

30 ARMA

Lehen unetik susmagarri nagusia herriko 74 urteko polizia ohia zen. Urtarrilaren 10ean atxilotu zuten. Ertzaintzak 30 arma inguru eta beste zenbait munizio aurkitu ditu bere etxean. Armak edukitzea leporatu diote, eta aske geratu da.

PROTESTA

Ehunka herritar mobilizatu ziren Amurrion tiroketa salatu eta familiari babesa adierazteko. Urtarrilaren 8an bi elkarretaratze egin zituzten, Amurrioko Udalak deiturikoa lehenbizi, eta Sortu alderdiak antolatutakoa ondoren.

IRUZURRA OPOSIZIOETAN. Ricardo Ituarte Osakidetzako arduradun ekonomikoak eta Juan Carlos Soto giza-baliabideetako zuzendariak euren karguak utzi dituzte. Kargugabetzeek ez dute esplikazio ofizialik, baina biek izan dute loturaren bat iazko enplegu eskaintzan detektatutako iruzurrarekin.

IKASTETXEAK GREBAN. EAEko gizarte ekimeneko eta Kristau Eskoletako lan gatazkan ez da akordio zantzurik nabari patronalaren eta sindikatuen artean. Hala, ELA, STEILAS, LAB, CCOO eta UGT-k hamar eguneko greba deialdiari eutsi diote. Lan hitzarmen berria eskatzen dute langileek.

MASKARADA. Urdiñarben abiatu dira Zuberoako maskaradak. Presente izan zuten aktualitatea: Trump, Poutine eta Macronek berenak entzun zituzten. Jaka horiak eta Mediterraneoa zeharkatzen dutenak ere ez zituzten ahantzi. Datozen hilabeteetan Zuberoako beste hamalau herri bisitatuko dituzte.

Nolakoa izan liteke Laugarren Industria Iraultzako gerra?

1914-18KO GERRAREN MENDEURRENAK OSPAKIZUNAK ERAGIN DITUEN ARREN, EZTABAIDA GUTXI PIZTU DU *MUNDUKO AZKEN GERRA* IZAN BEHAR OMEN ZUEN HAREN SUSTRAI ETA ONDORIOEZ. LEHEN MUNDU GERRAK ARRASTAN BIGARRENA EKARRI ZUEN, ETA JENDEEN SARRASKIAK EZ DU AMAIERARIK IZAN. HORI GUTXI BALITZ, ADITU ASKOK IKUSTEN DITUZTE PAREKOTASUN HANDI SAMARRAK DUELA MENDE BATEKO ETA GAURKO EGOEREN ARTEAN, MUNDU MAILAKO INDAR HARREMANETAN.

TESTUA I **PELLO ZUBIRIA KAMINO** @pellozubiria

Inperio erromatarraren kolapsoaz idatzia duen Ugo Bardi italiarrak –*Larrun* batean bilduta dago– bere blogean aipatu du datozen urteetan beste gerra handi batek eztanda egiteko aukeraz. Haren ustez, Lehen Mundu Gerran gertatu bezala, Potentzia Handiak ari dira beren piezak kokatzen xake joko erraldoian ari bailiran. Halako batean batek erabaki lezake lehen mugimendua egitea eta ondorioz besteak ere hastea mahai jokoa hankaz gora jartzerainoko liskarrean...

Badira adituak justu alderantzizkoa uste dutenak. Steven Pinker psikologoak 2011n plazaratu zuen "Barnean daramatzagun aingeru onenak: Zergatik bortizkeria gutxitu den" liburu famatua, argudiatuz gaurko mundua askoz bareagoa dela antzinakoa baino. Mendebaldeko herritarren irudipenak ere ildo beretik doazela esan liteke.

Bardik, aldiz, panorama kezkagarriagoa aurkezten du azken 600 urteko gerrak analisi estatistikoaren galbahetik iragazita. "Polita litzateke Pinkerri jarraitzea bere optimismoan. (...) Baina gure emaitzek gehiago berresten dituzte Lewis Fry Richardson pazifista eta matematikariak gerrak eredu estatistikoen arabera ulertu nahian hasi zituen analisiak. Berak ondorioztatu zuen gerra fenomeno estatistiko bat dela, erlijio, ideologi, diru eta lider handietatik at gertatzen dena. Gerrak, dirudienez, jarraitzen ditu urakan, lurrikara, tsunami eta uholdeak bezalako hondamendien antzeko lege estatistikoak: beren banaketak jarraitzen du funtzio potentzial jakin bat. (...). Aro modernoan gerrak ez dira hain ugariak, baina bai askoz suntsitzaileagoak".

Eta gerra berri bat edo batzuk posible eta probable ere baldin badira etorkizun hurbilean... nolakoa izango da?

"Hurrengo gerra nolakoa izango ote den kalkuluak orain arteko esperientzietan oinarritzen dira sarri, zeren eta iragana baita askotan etorkizunari buruzko pentsamenduak gidatzen dituen ipar-orratz subkontzientea. Baina hurrengo gerrak, bereziki potentzia handien artean jokatzen baldin badira, baliteke oso antzekotasun gutxi izatea iraganekoekin. Erabat aurreikusi gabeko moduetan gerta liteke, pentsalari militar sortzaileen hesi intelektualetatik kanpo garatuz. Botere handien arteko hurrengo gerra izango da Laugarren Industria Iraultzako lehena, eta urra lezake gerra moderno baten izaeraz guk daukagun ideia oro".

Horrela idatzi dute David Barno eta Nora Bensahel iparramerikarrek *War on the rocks* ("Gerra izotz koxkor batzuekin" euskara genezake) webgunean joan den ekainean plazaratutako "*War in the Fourth Industrial Revolution*" artikuluan. Klaus Schwab Munduko Ekonomia Foroko enpresa gizonetako batek duela urte gutxi modan jarritako Laugarren Industria Iraultzaren kontzeptuarekin lotu dute gerra. Lehen iraultza jazo bazen 1760 eta 1840 artean berekin ekarriz lurrunezko motorra, trena eta manufakturatzeko makinak, bigarrenak (1870-1914) produkzio masiboa eta argindarra ekarri zituen. XX. mende amaierako iraultza digitala litzateke hirugarrena, ordenagailuen eta interneten inguruan gorpuztua.

Schwabek dioenez, orain bizi duguna iraultza digitaletik harago doa: digitalitatea bizitzaren atal guztietan barneratu da eta laugarren iraultza industrialaren ezaugarri nagusia omen da fisikoa, digitala eta biologikoaren arteko mugak ezabatzea. Ordenagailu kuantikoak, bioteknologia, adimen artifiziala, robotika, nanoteknologia… gizakiaren mundu osoa eraldatzen ari dira sakonean eta gainera garatzen abiadura esponentzialean, enpresak, industriak, herrialdeak eta baita gizarteak ere itxuraldatuz. Hala aldatuko dute gerra ere, nahiz eta, Barno eta Bensahelek diotenez, militarrek –AEBetako armadakoentzat ari dira beraiek– ez duten aski pentsatu honetaz.

Hurrengo gerra jokatuko da ezaugarri berriak edukiko dituen gudu zelaietan. Hasteko, espazioan eta ziber-espazioan. Militarrek ez daukate iraganeko eredurik horietan gauzak nola gerta daitezkeen planifikatzeko. Eta aldi berean, espazioan eta ziber-espazioan gertatzen denak erabat baldintzatuko ditu potentzien aire, itsaso eta lurreko armaden ahalmenak, komunikazioetarako bezala funtzionatzeko ere sateliteen eta ordenadoreen mende daudelako.

Bigarren alor eta inkognita berria: adimen artifiziala, *big data*, makina autonomoak eta robotika. Nolakoak izango dira guduak, erabakiak makinek hartuko dituztenean gizakien lekuan? Armadak jadanik sartuta daude ahalmen horietan borroka tresnarik aurreratuenak edukitzeko lasterketan.

BARRACUDA. FRANTZIAK ERAIKI ETA MUNDUKO BESTE ZENBAIT HERRIALDEK ERE ESKURATU NAHI DUTEN 'BARRACUDA' URPEKO ONTZI NUKLEARRA.

Hirugarrenik, autoreek aurreratzen dute berriro dagoela mahai gainean defentsa masiboaren estrategia. AEBetako –eta pentsa genezake NATOko– militarrek azken hamarkadetako inbertsioetan lehenetsi baldin badituzte unitate txiki arma sofistikatuz hornituak, gerta liteke Laugarren Industria Iraultzaren zabaltzearekin eraginkortasun handia eskuratzea askoz koste txikiagokoak izateagatik guduetan masan erabiltzeko moduko arma berriak, izan 3D inprimagailuekin ekoiztutakoak, drone merkeak erlekume edo txori bandaden moduan defentsarako efikazia handiz erabil daitezkeenak...

Potentzia handiak, laugarrenik, puntako teknologiazko (*hightech*) arma klase berriak ari dira sortzen, izan misil hipersonikoak, hiper-abiadurazko proiektilak, kainoi elektromagnetikoak (*railgun*) energia igortzeko armak (*directed energy weapon*), eta beste. Hauekin armadek lortuko dituzte orain arte ezagutu ez diren bezalako abiadura eta suntsiketa ahalmenak. Kontua da, autoreon arabera, Txina bezalako potentzia berriek justu arma berriotan daukatela une honetan abantaila, bere armada ez dagoelako aurreko belaunaldietako inbertsio eta planifikazioei lotutako gastuetan harrapatuta.

Azkenik, hurrengo gerran azalduko da *x faktorea*, osagai ezezaguna: potentzia handiak sekretupean garatzen dituzten teknologiak, etsaia ezustean harrapatu eta lehengo nahiz oraingo armak jokoz kanpo utzi nahian. Hurrengo gatazka handiaren lehen egunean ager liteke arma ezezagun berri hori.

"Laugarren Industria Iraultzaren ezaugarri sortu berriek iradokitzen digute gerraren izaeran aldaketa sakonak gertatzeko puntuan gaudela. Hurrengo gatazka nagusian berriz ere azalduko da gerran gizakiak sufritzeko daukan ahalmena, baina guduak, armak eta taktikak orain arte ikusi gabeak izanen dira".

Hala ere, eta *War on the Rocks*-ek ez aipatu arren, agian adimen artifiziala bezain *cool* ez delakoan, bakearen aldeko munduko aktibista asko gaur ere bigarren iraultza industrialaren gailurra den armak izutzen ditu: 1945etik hona berriro erabili ez arren, mundutarrak erabat suntsitzeko ahalmena duen bonba atomikoak. Nazio Batuen Erakundearen batzarrak bonba atomikoak debekatzeko kanpainarekin batera, aktibista horiek osatzen dute gerraren aurkako mugimendu indartsuenetakoa, tamalez gure artean aski oihartzun ez duena. ●

Maddi Barber

ITOIZKO URTEGIAREN ONDORIOAK BEHATZEN

“

NOLA EGIN DAITEKE PAISAIAREN EDO LEKU BATEN DOLUA?

”

Mila galdera ditu borborka antropologiarekin maiteminduta dagoen Artzibarko gazteak. Horietako bat Itoizko urtegiarekin lotua: nola bizi daiteke bertako jendea zazpi herri eta hiru natura-erreserba ito zituen ur baltsa erraldoiaren ondo-ondoan?

TESTUA I **REYES ILINTXETA**
ARGAZKIAK I **DANI BLANCO**

***592 metrotik goiti* filmean abereekin abeltzainek duten lotura afektiboa azpimarratu duzu.**
Bai, baina abeltzain guztiek ez dute harremana horrela sentitzen. Maitasun eta erabilera erlazioak dira, finean: zuk txekorrari esnea ematen diozu gero zuk bera jateko. Gaia oso konplexua da.

Zer harreman duzu zuk animaliekin?
Nire aita abeltzaina zen eta sentitzen dut azkenaldian ari naizela harreman hori berreskuratzen. Miresmen puntu bat eta begirunea sentitzen dut beste espezietako animaliekiko. Mundu honetan elkarrekin nola bizi gaitezkeen pentsatzeko beharra dut askotan. Adibidez, Itoitz bezalako azpiegitura suntsitzaileekin aski garbi ikusten da nola gizakiok uste dugun natur baliabideak soilik guk erabiltzeko daudela.

Barazki-jalea zara? edo beganoa?
Barazki-jalea naiz. Asko gustatzen zait haragia, baina hautu hau egin nuen duela urte eta erdi.

Animalien, lurraren eta pertsonen arteko harremanen eztabaidarik bada jendartean?
Bai. Mugimendu antiespezistak, ekofeministak, ekologistak eta abarrek eztabaidak proposatzen dituzte. Nire inguruan sumatzen dut jendea kezkatuta eta eguneroko bizitzan gauzak aldatzen. Era berean, artean ere ikusten dut badagoela korronte garrantzitsu bat, “natura” deitu izan da eta hori zalantzan jartzen du. Natura ez da hor kanpoan dagoen zerbait, kulturarekin zerikusirik ez duena. Guztiak zerbaiten parte gara.

IRUDIEN XARMAK BETIDANIK ERAKARRI ZAITU?

Bai, hala da. Ikus-entzunezkoak gustuko ditut txikitatik. 7 urte nituenean aitak argazki kamera opari egin zidan. Beti ibiltzen nintzen gertukoei argazkiak egiten. Bestalde, marrazteko trebetasuna izan dut, beraz unibertsitatera iritsita ez nekien Arte Ederrak edo Ikus-Entzunezko Komunikazioa ikasi. Nik uste dut, neurri batean, beldurrak eraman ninduela bigarrena aukeratzera. Arte Ederrak karrera artearekin edo sormenarekin lotutako zerbait egiteko erronka handia zen eta une horretan ez nintzen gai sentitzen. Aldiz, ikusten nuen beste aukerak, Ikus-entzunezkoenak, ez ninduela behartzen artista izatera, hau da, lanbide honetatik bizi nintekeela eta nire proiektuak ere aurrera eraman, aldi berean. Hau da orain egiten dudan irakurketa eta pozik nago egin dudan bidearekin.

ONDOREN KUBARA JOAN ZINEN. ZEREN BILA?

Zinemarako Arte Zuzendaritza ikastera joan nintzen. Argi nuen filmak egin nahi nituela, baina uste dut ez nintzela ausartzen bete-betean horretan murgiltzera, eta horregatik, halako estrategiak garatzen nituen zinemara gerturatzeko. Zinema zuzendaritza ikasi beharrean arte zuzendaritza hautatu nuen, baina berehala konturatu nintzen ez zela nahi nuena. Irakasteko produkzio moduek haserretzen ninduten. Egun batean, adibidez, Hollywoodeko zuzendari bat etorri zen eta kontatu zigun nola behin herri oso bat egin zuten film bat errodatzeko eta gero suntsitu. Gainera, filma oso txarra zen. Dokumentalgintzaren prozesu eta produkzio moduekin erosoago sentitzen nintzen.

Itzulitakoan Labrit Multimedia Iruñeko enpresarekin eta *freelance* aritu nintzen lanean gustura. Urte batzuk geroago, Manchesterrera Ikus-Antropologia ikastera joan nintzen.

Maddi Barber Gutiérrez

LAKABE, 1988

Ikus-entzunezko Komunikazioan lizentziaduna, EHUn. 2017an, Ikus-antropologia masterra egin zuen Manchesterreko Unibertsitatean eta han *Yours Truly* zuzendu zuen C. Murray eta C. Hoskins-ekin. *592 metroz goiti* dokumentala da master bukaerako lana. 2018an, Visions du Réel jaialdian (Nyon, Suitza) estreinatu ondoren, Donostiako Zinemaldiko Zabaltegi-Tabakalera sailean hartu zuen parte. Zinemagile nafarraren lana Kimuak 2018 sortarako hautatua izan zen. Orain Itoizko urtegiarekin lotutako bigarren lana ari da prestatzen: *Urpean lurra*.

Zu Lakabe herri komunitarioan sortu eta hazi zinen. Nolakoa izan zen zure haurtzaroa?

Oso ederra. Askatasun handia neukan herrian, animaliekin eta jende guztiarekin ibiltzeko. Nerabezaroa, aldiz, ez zen horren polita izan. Bi munduren artean banatuta sentitzen nintzen. Agoitzen nituen lagunak eta hangoa izan nahi nuen. Errua botatzen nion herriari ez nintzelako "normala". Adin horretan besteak bezalakoa izan nahi duzu eta Adidasen txandala erosi... Orain, urteak pasata, miresmena sentitzen dut Lakabe moduko komunitateez. Erresistentzia puntuak dira. Itxaropena ematen didate.

Halako batera joanen zinateke bizitzera?

Lakaben agian ez, baina halako komunitate batean bizitzea nire ametsetako bat da. Herri batean bizi nahi nuke, baina ez herri arrunt batean, baizik eta proiektu komun bat duen herri batean. Proiektu artistiko batekin lotua, agian. Zinema jaialdi bat edo horrelako zerbait duen herri txiki batean, adibidez. Lakaben beti diote herria sortu zutela mundu berri bat eraikitzeko, zegoen munduarekin borrokatzeari utzi nahi ziotelako. Mundu berria eraikiz borrokatzen jarraitzen dute. Oso eredu propositiboa da.

Zer abantaila dituzte halako ekimen komunitarioek?

Ni egon naizen proiektuetan, Iruñeko Jazar artisten kolektiboan, esate baterako, ikusi dut hor sentitzen duzun indarrak ez duela batere zerikusik zure kabuz ibiltzearekin. Indar kolektibo bat dago, aurrera jarraitzera bultzatzen zaituena. Oso boteretsua da. Zerbaiten parte sentitzea sentsazio ederra da.

***Yours truly* filmean ere animaliak ageri dira, baina hilik.**

Bai, disekatuak. Bi ikaskiderekin egin nuen Manchesterren, Christopher Murray eta Charlotte Hoskins-ekin. Desagertuta dauden animalia espezieen erakusketa bat ikustera joan ginen. Hor zeuden inoiz bizirik ikusi ez ditugun animaliak, dodoa, Tasmaniako tigrea, hainbat hegazti... Esan ziguten areto horretan zeudenak zeuzkaten guztien %5 baino ez zirela eta gainerakoak biltegi batean zeudela. Eskatu genuen hura bisitatzeko baimena eta han grabatu genituen film honetarako irudiak. Izugarria izan zen, guri begira zeuden animalia guztiak, noizbait, bizirik egon zirela bagenekien.

Gutun oso interesgarriak aurkitu genituen, Manchesterreko museoak eta taxidermistek eta esploratzaileek elkarri bidalitakoak. Haien animalia bilduma osatzean izan ziren harreman komertzialak islatuta daude eskutitz horietan. Pieza horiek deserosoak zirela ere konturatu ginen. Izan ere, 60ko hamarkadan kanpotik ekarritako pieza exotikoenak erre egin zituzten zen-

ZERGATIK IKUS-ANTROPOLOGIA?

Neure buruari galdetzen nion nondik hitz egin nahi nuen. Ezagutza teknikoak banituen, baina falta zitzaidan jarrera-hartze bat munduan eta Antropologiak horretarako tresnak eskaintzen ahal zizkidala begitandu zitzaidan.

Ikus-antropologiak duen tresnarik indartsuena da modu sentsorial bat erabiliz gerturatzen dela aztertzen duen horretara, antropologia klasikoarekin alderatuz. Ezagutzak beste era batean ematen ditu eta ikusleak ere bestela jasotzen ditu. Lagun batek dio zineman oso zaila dela kontzeptu abstraktu handiez hitz egitea, eta horrek estrategia oso zehatzak bilatzera behartzen zaituela ikuslea kontzeptu horietara eramateko. Ados nago. Nola adierazi askatasuna edo mina zineman?

ZER DA LANDU NAHI DUZUNA?

Leku zehatzetan gizakiok daukagun harremana beste espezie batzuekin, paisaiarekin... Antropologian bada orain pentsamendu korronte bat, espezie anitzeko etnografia deitzen da, oso interesgarria iruditzen zait. Jende asko ari da aztertzen zein modutan sortzen dituen harremanak gizakiak bere inguruarekin eta beste espezieekin, pentsamendu antropozentrikotik urrundu nahian. Manchesterren gizakien eta animalien arteko harremanei buruzko ikasgai bat egiteko aukera izan nuen eta horrek mundu bat ireki zidan.

bait museotan, iragan koloniala ezabatu nahian, nonbait.

Master bukaerako lana egiterakoan Itoizko urtegiak zure sorlekura ekarritako egoera berria hartu zenuen ardatz.

Nik uste dut lagun batek egindako argazkia izan zela ideiaren jatorria. Irudian ura ikusten da behealdean eta gorago zuhaitz zuriz osatutako basoa. Zuhaitzak tente mantentzen dira, baina hilik daude. Gehienean urpean egoten dira, baina Itoizko urtegiko ur maila jaisten denean agerian geratzen dira, kolorea galduta. Irudi ederra eta mingarria zen aldi berean, eta asko erakartzen ninduen.

Horrekin batera, gogoan nuen orain hiru urte Itoitzekiko Elkartasun Taldeko kideek urtegiaren kontrako borroka garaiko argazki eta bideoak zituztela esan zidatela. Irudi horiek ikusi nahi nituen, nire historiaren parte ere badirelako. Momentu hura orainalditik ulertzeko desiratik sortu zen proiektua.

Zer da 592?

Bailaran bizitza eta heriotzaren artean inposatu zen muga da 592 kota. Filmeko basozainak horrela adierazi zidan: hortik gora zegoena salbatu zen eta hortik beherako guztia urpean gelditu zen. Izugarria da paper baten gainean marraztutako lerro batek zer nolako eragina izan duen hor zeuden harri, herri, pertsona, landare eta bizidun guztiengan.

Zenbat herri suntsitu ziren?

Zazpi herri eta hiru natura-erreserba.

Zure haurtzaroa urperatu dute?

Nire haurtzaroko leku asko urperatu dituzte, bai. Beste batzuei beren herria eta bizi osoa ere bai. Nire herria 592 metrotik gora geratu zen, baina txikitan ezagututako toki asko eta asko ez: Irati ibaia, errepidea, zubi esekia… Gogorra da.

Zein da hango jendearen sentipen nagusia?

Jende askok pentsatzen zuen borroka irabaziko genuela, baina ez. Etsipena sortzen du baina 15 urte igaro dira ordutik. Horregatik, hurbilpena orainalditik egin dut. Ez dut berrikuspen bat egin nahi izan, badirelako beste lan batzuk hori lantzen dutenak. Nire interesa da: eta orain zer? Nola bizi gaitezke hemen eta honekin hemendik aurrera?

Etsaiarekin bizitzea bezalakoa da?

Bai. Horren aurrean pertsona bakoitzak bere estrategiak garatu ditu. Batzuek nahiago dute gertatutakoa ez ikusi eta jada ez dira hurbiltzen zonaldera. Beste batzuk onarpen prozesuan daude eta gutxinaka ari dira hurbiltzen. Konplexua

da kontua. Nola egin daiteke paisaiaren edo leku baten dolua? Nola egin dolu kolektiboa?

Nola hartu dute filma ikusleek?
Filmaren harrera oso polita izan da. Suitzan estreinatu zen eta han harrera hotzagoa izan zen, Euskal Herrian baino. Donostian oso ederra izan zen, eta Nagore herrian ere bai, hunkigarria eta oso interesgarria. Eztabaida txiki bat sortu zen filma ikusi eta gero, eta sentipenak elkarbanatzeko lehenbiziko aldia izan zen askorentzat. Batzuk eskerrak ematera etorri zitzaizkidan, aitortuz etxean oraindik ezin dutela honetaz mintzatu.

Filmak aukera eman zion jendeari elkartzeko eta eztabaidatzeko. Espazio bat sortu zen esperientziak partekatzeko eta hori da zinemaren indar handienetako bat, nire ustez. Oihartzun handiko borroka izan zen eta orain isilune bat dago, eta jendeak eskertu zuen eztabaida berpiztea. Artzibar eta Longida herriei aitorpena egitea eta hurrengo belaunaldiei haien historia ezagutzeko aukera ematea oso garrantzitsua iruditzen zait. Zinema, berezkoa duen lengoaiarengatik, horretarako tresna boteretsua izan daiteke.

Zeuk zer ikasi duzu lan honekin?
Filma egin baino lehen, elkarrizketa askotxo egin nuen eta orduan ohartu nintzen animaliak bitartekariak izan direla prozesu honetan askorentzat. Nik lan egin nuen, bereziki, basozain batekin eta abeltzain batekin. Biak urtegira gerturatzen dira animaliekin duten harremana dela medio. Abeltzainak esaten zidan behiek urtegiko ura edaten zutela konturatu zela urtegiak onurak ere badituela, herrian maiz ur gutxi baitago. Batzuk hasi dira urtegiaren alde positibo bat ikusten, eta hor, aldaketa hasten da.

Urtegian gizakiengan eta beste espeziengan arreta jartzeak eragina izan du nigan, kezkatzen nauen horri aurrez aurre begiratzerakoan, batez ere. Egia esan urtegira hurbiltzea ez da erraza; ez da toki guztietatik ikusten, baina hortxe dago.

Ikusi ez, baina sentitu bai. Agoizko eta inguruko jendea horren beldur da?
Nik uste dut jendea, oro har, lasai dagoela, edo ahaztuxeago. Lagun batek esan zidan urtegiaz ekaitz egunetan baino ez dela oroitzen. Baina, egia esan, ez dakit, nire lanak goiko bailaretara mugatu ditut. Esperientzia erabat desberdina da, urtegiko presatik gora geratu diren herrietakoak garenona eta presatik beherakoena.

***Urpean lurra* orain egiten ari zaren dokumentala honekin lotua dago?**
Bai. Diptiko baten bigarren partea izango da. Oso lan desberdina da. Lehena oso behatzekoa da. Haien egunerokoan segitzen nituen. Beste honetan ez. Itoizko Elkartasun Taldekoen artxiboko irudiak erabiltzen ari naiz. Honetaz gain beste bi osagai nagusi daude: gaur egungo paisaia eta ametsak. Urte hauetan, jendearekin hizketan, ohartu naiz gaueko ametsetan askotan agertzen direla urpean gelditutako tokiak. Gaur egun toki horietara iristeko modu bakarra dira ametsak.

Zertaz hitz egitea gustatuko litzaizuke etorkizunean?
Gizakien, lurraldearen eta animalien arteko harremanetan ikertzen jarraitzea da nire desira. Hor dago nire irudiak sortzeko gogoa. ●

Urte berrirako asmo onak

IRATI LABAIEN EGIGUREN
EHU-KO IRAKASLEA
@iratilabaien

Desio onez hasi ohi dugu urte berria. Hiru urte pasa dira Nazio Batuen Erakundeak (NBE) sustatutako *Garapen Iraunkorrerako Helburuak* (GIH) martxan jarri zirenetik, eta ingurumenarekiko enpatiazko begiradaz has gintezke. 2015eko irailean, ia 200 herrialdek hainbat jendarteren garapena bultzatzeko akordioa onetsi zuten. GIH horiek 2000-2015 urte bitartean lortu nahi izan ziren eta zalantzazko emaitza izan zuten *Milurteko Garapen Helburu*-en ikusmira zabaldu nahi izan zuten. Orotara, 2015ean, hamazazpi helburu zehaztu ziren eta helburu nagusi hauen pean, berriz, 169 jomuga deiturikoak. Zerrenda luze horrek, pobreziaren kontzeptuak beregain dituen hamaika dimentsio barneratzeaz gain, ingurumenaren zaintzarekin eta desberdintasunen gutxitzearekin loturiko bestelako esparruak ere jorratu zituen.

Egingarriak ez diren helburu gehiegi dira askoren ustez, eta alboratu ezin daitezkeen jendarte desberdinen eta izadiaren arazoen konplexutasuna islatzen duen zerrenda da beste batzuentzat. Nolanahi ere, jarraitzaile eta kontrakoen hausnarketen artean, badira amankomunak: alde batetik, maiz erabilitako ipar-hego sailkapena eten nahian datoz, hots, lehen aldiz, garapena herrialde ororen ardura dela nabarmendu dute eta ez "lurralde azpigaratu" deitu izan zaien horien betebehar soila; bestalde, helburuen artean ez da hierarkiarik zehaztu, nolabait, xede bakoitzaren garrantzia gorde nahi izan dela atzeman daiteke. Ezaugarri hauek ez dira oharkabean pasa, eta idatzizko testua bakarrik bada ere, ikuspuntu berritzailetzat jo ditu alor hauetan diharduen askok.

NBE-KO *GIH*-AK EZ DIRA LOTESLEAK, BERAZ, ERAGILE BAKOITZAREN BAITAN DAGO HAUEK APLIKATU NAHI IZATEA. ASKORI HARRIGARRIA IRUDITU ZAIGU JENDARTE ORORI ERAGITEN DIOTEN GARRANTZIZKO GAI HAUEN APLIKAZIOA HAUTAZKOA IZATEA

Halarik ere, eta puntu berritzaileak ukatu gabe, bada eszeptikoen artean indarrez sartu den kritikarik ere. Helburuen zehaztasun falta da horietako bat. Hau da, helburuek ez dituzte hainbatetan hauek lortu ahal izateko bideak zehaztu. Zeintzuk dira, esaterako, ingurumena urratu gabe ekonomia suspertzeko aktibatuko diren neurri eraldatzaileak? Are gehiago, aliantza globalen beharraz ari garenean, zeinentzat eta zertarako nahi ditugu? Ideia zabalegiak definitzearen arriskuetako bat, nazioartean zein tokiko eremuetan botere gehien duten eragileak helburu hauek euren erara moldatzea da, gehiengoak dituen beharrei erreparatu gabe.

Aipagarria da baita ere, GIHen finantzaketarako bide eta aukerak zehazteko goi-bilera egin zela Etiopiako Addis Abeba hiriburuan. Bertan, gizarte zibileko hainbat erakundek nazioarteko enpresa handiei zerga-sistema arautzearen garrantzia plazaratu zuten beste eskaera askoren artean, pobrezia eta desberdintasunen erroko arazoa sistemikoa zela aldarrikatuz. Jakina da, eskaera hauei Europako eta AEBetako hainbat herrialdek trabak jarri dizkietela, eraldaketaren zailtasuna adieraziz.

Gainera, GIHak ez dira lotesleak, eta beraz, eragile bakoitzaren baitan dago hauek aplikatu nahi izatea, eta aplikatuz gero, baita interpretatzea eta ebaluatzea ere. Askori zinez harrigarria iruditu zaigu jendarte ororí eragiten dioten garrantzizko gai hauen aplikazioa hautazkoa izatea.

Aurreko lerroetan zehaztutako mugez gain, beste hamaika traba ere azaleratu dira azken urteotan, konplexutasun handiko gaiei aurre egiteak berekin dakartzanak ziurrenik ere. Baina inperfekzio horiekin batera, zenbait gauza asmatu egin da, eta babes handia lortu dutela ere ezin uka daiteke. Horren isla dira munduko leku anitzetan martxan jarri diren ekimenak. Gurean ere makina bat lagun ari da helburu hauek gure errealitatera atxiki ahal izateko bidea egiten; azken batean, helburu hauen interpretazioa nazioarteko enpresa handien eskuetan uztea baino hobe izango da guk gure egitea, gehiengoaren mesederako. ●

Libre, liberal eta libertario

ANTTON OLARIAGA

SONIA GONZÁLEZ
IDAZLEA ETA ABAR
@sonetska

Askatasunera deiek eta errespetu aldarriek betetzen dituzte telebista orduak eta egunkari orriak, irakur-entzuleak formulaziotik harago joango ez diren segurtasunarekin. Ze, nork ez du aske izan nahi? Giza-seme eta emakume guztiok izan nahiko genuke libre.

(Neo)liberalismoaren askatasuna kapitalen eta salgaien mugimendura mugatzen dela gauza jakina da. Gabonetan jan ditugun arkumeak Marokotik edo beste nonbaitetik ekarri eta, Estatuan akabatzeagatik, espainiar jatorria onartu diete, pertsonak itsasoan hiltzen diren bitartean.

Norberak nahi duena egin dezala promulgatu izan du liberalismoak bere sorreratik, denok hautatzeko aukera berberak izango bagenitu bezala, norberaren kontingentzia eta baldintzapenetan preso ez bageunde legez.

Batzuk erosleak dira; gehienok, saltzaileak baino, salgaiak gara, gure lan indarra, adimena edo gorputzak derrigor saldu behar ditugulako. Inor ez da puta sartzen nahi duelako eta inoren gogoa ez da egunean hamar orduz zentralita batean aguantatzen egotea. *Neure buruarekin nahi dudana egiten dut* baino falazia handiagorik ez dago, eta hau ere ez da berria, ezta muturreko ezkerraren pentsamendua ere; XVIII. mendean utzi zuen adierazita Rousseauk bere *Kontratu sozial*-ean.

Askatasun indibidualen sasoia omen da, indibiduoa baita denaren alfa eta omega. Eta, liberalismoaren atzaparretan gatibu, badirudi ezkerrari libertarioa izaten ahaztu zaiola. Kontrol eta diziplina sozialerako estamentuak ez daude eztabaidagai; natural eta onargarritzat aurkezten zaizkigu, ekonomiari kapitalismoa berezkoa omen zaion bezala. Familia, eskola, ejertzito, errepresio indar, elizak... ezaugarri hetereogeneo baina helburu homogeneoa duten hainbat botereren mataza osatzen dute.

Eta neoliberalismoa kontserbadorea ere badenez, kontserbadurismorantz egin dugu arineketan. Ezkontzeaz lotsaturik, gurasoek hala nahi zutela ematen zen aitzakiatzat duela urte gutxi, baina orain "egin dezala norberak nahi duena", eraztun, esku-eskatze, abade eta parafernalia guztiarekin.

Eskolari gero eta gauza gehiago irakasteko eskatzen diogu, etxean irakastea neketsua ei delako, baina ez dirudi gehiegi inporta digunik eskolaren azken helburua izatea umeak etorkizuneko kateetarako prestatzea.

Sexua eta gorputzak demonizatzen dira, "ez dadila titi bat pantailan ikusi!", denok titiburu bat aho barruan izan ez bagenu bezala. Bien bitartean, emakume eta neskatoak gero eta sexualizatuago daude (gizonen disfruterako, jakina, ez geure sexualitatearen jabe garelako). Ikuspegi libertariotik argi dago pertsonen benetako askatasunerako, sexu, desira eta gorputzak askatu eta normalizatu behar direla. Ikuspegi feministatik bezalaxe, feminismoa emakumeen (eta gizonen) askapenerako mugimendua den heinean.

Nork bere diruarekin nahi duena egin dezala, nahiz eta txalet bat erosi, nahiz eta horrek herriarengandik urruntzeko balio, nahiz eta handik aurrera interes pertsonal nagusia izango den bizi maila horri eustea eta jabetza garesti hori ez galtzea.

Pertsonala den oro politikoa ere badelako, altxatzen garenetik oheratu arte egiten eta pentsatzen dugun guztia ikuspegi liberal-kontserbadoreaz ala libertario-askatzaileaz egin daiteke eta egin egiten dugu. Urte berrirako asmoen artean gimnasiora joatea baino probetxugarriago izango genuke, botere politiko-ekonomikoaz gain, prozesu sozial eta kultural guztiei eragiten dien botere sarea borrokatu beharraz berriro ohartzea eta askatasunaren kontzepzio liberalaz askatzen hastea. ●

Hiru desafio kooperatibo

ANDONI MUJIKA ULAZIA
IRAKASLEA
@mujikaandoni

Gatozen urteetara begira, enpresen (kooperatibak batez ere) erronka nagusiak identifikatzerako orduan, adostasun maila zabala sumatzen dut. Esaterako ingurumenean, parte-hartzean, finantzazioan, berrikuntzan, lehiakortasunean edota gobernantzan. Hala ere, hauen artean, gutxi nabarmentzen diren hiruri eman nahi diet protagonismoa: kooperazioa, organizazioen humanizazioa eta enpresen rol berria gizartean. Aletu ditzagun.

Lehena da kooperazioa praktikatzeko beharra eta zailtasuna. Lankidetza oinarri duten entitateetan kooperazioa izan behar da ardatza. Gogora dezagun, kooperatzea diogunean, elkarrekin lan eginez proiektuak aurrera ateratzea diogula. Eta instantzia zenbaitetatik aditz honen onurak aipatzen diren arren, badirudi, kooperazioa egitea ez dela hain erraza. Zailtasun horren beste ñabardura bat da organizazio barruan kooperatzea kostatzen bazaigu, erakundeen artean interkooperatzea askoz nekezagoa egiten zaigula. Hausnartu dezagun beste apur bat. Kooperazioa modu naturalean, ia berez, pizten da beharrizan garbi bat dagoenean. Behin proiektua "instituzionalizatuta", kooperatzeko, baldintzak sortu egin behar dira. Hau da, ekosistema aproposa birsortu behar da modu "artifizialago" batean.

Bigarren erronka da humanizazioa. Kooperazioaz, demokraziaz eta justiziaz hitz egiten den ereduetan, pertsonari buruz derrigor hitz egin behar da esplizituago. Izan ere, diogu gure proiektuak sozialak eta enpresarialak direla, ados, baina hirugarren bereizgarria nabarmendu behar dugu, humanoak ere badirela alegia. Ezaugarri hori funtsezkoa da. Bai pertsonarentzat, baita erakundearentzat ere. Pertsonak hazteko lekua izan behar du organizazioak. Proiektu kolektiboek, badirudi, ez daukatela legitimitate handiegirik pertsonek zentroa hartzen ez badute.

Amaitzeko, hirugarren desafioa da enpresa hauen papera komunitate barruan berriz asmatu behar dela. Orain arte izan duten protagonismo mugatua berrikusi eta, aurrera begira, traktore izan daitezke. Izan ere, enpresek egitura bat daukate, pertsonak dituzte eta denbora ematen dugu bertan lanean. Berrikuntza sozialaren angelutik konplexurik gabe begiratuta, baldintza egokiak dira gizarteko esparru guztietan eragile izateko. Tradizionalki esparru hauetan beste mota bateko kolektiboek izan dute protagonismoa, baina badirudi, eragile ekonomikoek potentzial izugarria daukatela funtzio esanguratsua betetzeko, baldin badakite gizartean egoteko euren modua berrasmatzen. ●

Lehendabiziko aldiez

CASTILLO SUAREZ
IDAZLEA
@casti_suarez

Lehendabiziko aldiz Berri Txarrak taldearen berri izan nuenean telebistan izan zen. Irakurtzen zituzten gauzei buruz galdetu eta nire lehendabiziko poema liburua aipatu zuten. Harrotasuna eta harridura sentitu nituen, biak batera. Lehendabiziko aldiz Gorka Urbizurekin hitz egin nuenean Onki Xinen geunden, eta nola ez, poesiaz hitz egin genuen. Lehendabiziko aldiz Berri Txarraken kontzertu bat backstagetik ikusi nuenean Zegaman izan zen, ez nuen ezer taxuz entzun, baina akordatzen naiz Etxarri Aranatzen geratu ginela ondoren, Gironatik etortzen crewarekin, eta arrakastaz eta bakardadeaz hitz egin genuela. Bien arteko loturaz. Lehendabiziko aldiz Berri Txarraken kontzertu batera joan nintzenean Lur diskotekan izan zen. Kontzertua baino lehen trinketean afaldu genuen, Kokeinekoak ere han zirela. Akordatzen naiz azkeneko aldiz ikusi genuela iheslari bat egun hartan. Ez ginen jabetu agur esan zigula. Azkeneko aldiz Berri Txarrak ikusten dugunean legegintzaldi berri batean egonen gara: zuk alkatetza utzita eta nik poema liburua plazaratuta. Bukaerak hasierak baitira aldi berean ●

Norantz goaz?

JOXERRA AIZPURUA SARASOLA
INDUSTRIA INGENIARIA

2018. urtean Ipar poloan ez da errekorrik izan izotzen urketa mailan eta Trumpek aitzakia izango du ikatza erretzen duten zentralekin edo erregai fosilei esker aritzen diren ibilgailuekin aurrera segitzeko; edo Bolsonarok Amazonian nekazaritza intentsiborako lurrak eskuratzeko; edo Macronek zentral nuklearren itxiera ahalik eta gehien atzeratzeko eta gainerakook ahalik eta gehien produzitzeko eta kontsumitzeko.

Ozono geruzaren arazoa konponduta zegoela iragarri ziguten 2017an, baina iazkoa gaudeneko hamarkadako larrienetakoa izan da. Hala ere, arazo hori Hego poloan denbora tarte txiki batean gertatzen denez, gaitz erdi. Txernobilen eta Fukushiman jarritako txapelek erradiazioa barreiatzea eragozten dutenez, ez dugu haien inguruko berririk izan eta gure memoria kolektiboan ia ahaztuta ditugu.

Azken hamar urteetan pairatu dugun krisiak gehienok txirotu bagaitu ere, gutxi batzuk aberatsagoak dira, bai pertsonak, baita estatuak ere, baina hala eta guztiz ere, ezin uka teknologiak aurrera egin duela, eta nola gainera.

ZIENTZIA ALORRETIK GERO ETA OZENAGO ADIERAZTEN DIGUTE GURE MUNDUAK GERO ETA GAIXOTASUN LARRIAGOAK DITUELA, BAINA BIZITZA ERREALEAN NEURRI ZUZENTZAILE GUTXI HARTZEAZ GAIN, KATASTROFISTAK GURE ARTEAN BETIDANIK IZAN DIREN USTEA ZABALTZEN ARI DELA IRUDITZEN ZAIT

Zientzia alorretik gero eta ozenago adierazten digute gure munduak gero eta gaixotasun larriagoak dituela, baina bizitza errealean neurri zuzentzaile gutxi hartzeaz gain, katastrofistak gure artean betidanik izan diren ustea zabaltzen ari dela iruditzen zait. 2000. urtean mundua amaituko zela, itsas mailak gure hondartzak jan egingo dituela, Ozeano Artikoan urte gutxi barru ez dela izotzik izango, petrolioa amaitzear dagoela eta gauzatzen ikusiko ez ditugun abar luze batek nolabaiteko mesfidantza eragin du gizartean. Izan ere, aipatu ditugun baieztapenekin batera jakin badakigu ikerketa zientifikoaren atzean enpresa handien interesak daudela.

Hala ere, zientzialarien esanek aztarna utzi dute azken urteotan gure gizarte jardueran; hondakinen bilketa arduratsuagoa, energiaren eta uraren erabilpen egokiagoa, garraio publikoa hobetzea, eremu berdeak zabaltzea, herrietako planifikazio urbanistikoa eta beste zenbait kontzeptu barneratu ditugu. Baina produzitzen eta kontsumitzen segitu behar dugu eta gure herrietako barne produktu gordinak hazten segitu behar du gure bizi maila mantentzeko eta hobetzeko.

Obamaren eta Merkelen garaian zientziaren asmoa, neurri txiki batean bederen, mundua zaintzearen ildoan jarri zen, baina Trump, Bolsonaro eta akolito zerrenda luzea nagusi diren garaiotan, zientziak abiadura bizian jarraituko duelakoan nago, baina norabidea aldatuta. Alegia, atzekoz aurrera. ●

ARGIA

Indartu DEZAGUN, INDARTZEN GAITUENA

ZUK ERABAKI ZENBATEKO EKARPEN EKONOMIKOA EMAN NAHI DUZUN ARGIA-REN ALDE

ZUK ERABAKI ARGIA-REN PRODUKTUEN ARTEAN, ZER JASO NAHI DUZUN BUELTAN

PRESOEN ALDEKO OIHUA

Urteroko zita bihurtua da jende askorentzat urtarrileko manifestazioa. Lelo batekin ala bestearekin, milaka lagunek baliatzen dute urtez urte euskal preso politikoen korapiloa askatu beharra sentitzen dutela erakusteko. Urteetako immobilismoaren ostean, Frantziako gobernuak 25 eta Espainiakoak 11 preso hurbildu dituzten arren iaz, egoera berriz ere geldirik dela salatu dute antolatzaileek. "Ez dugu ez ulertzen ez onartzen", adierazi dute.

BILBOKO ARGAZKIAK | **DANI BLANCO**
BAIONAKO ARGAZKIAK | **IBAI ARRIETA**
TESTUA | **LANDER ARBELAITZ**

Manifestazioa hastear zela, Bilboko La Casillaren inguruetako errepide bazterrak ikusita, bazirudien aurreko urteetan baino jende gutxiago bildu zela zitara. Pankartak ireki, senideak beren lekuetan jarri, eta martxa abiatu zenean, ordea, Autonomia kalea hartzen zuen jendetzak zalantzak uxatu zituen. Beste behin ere dozenaka milaka lagun batu ziren euskal preso politikoen eskubideen aldeko martxetara. Aurten Baionan eta Bilbon aldi berean egin zituzten "Orain Presoak" lelopean mobilizazioak, Espainiako eta Frantziako gobernuak interpelatu asmoz. *Gara*ren kontaketaren arabera, 76.000 lagun bildu ziren Bilbon, eta 9.000 Baionan, orotara 85.000.

Txalo zaparrada etengabearen erdian egin zuten bidea senideek. "Ea argazkietan nire semeak ikusten nauen –esan zigun senide batek–, Mont-de-Marsango espetxera hurbildu berri dute, baina oraindik oso latza da egoera".

Azken urteetan gizarteko sektore sozial eta politiko anitzekin konektatzeko ahaleginak egiten ari dira bai Sare Hegoaldean, baita Bake Bidea ere Iparraldean.

Horren erakusle, Ipar Euskal Herriko auzapezen %65ek babestu dutela martxa. Mixel Berhokoirigoinek zehatz zerrendatu zituen aldarrikapenak, *Berria*ko Maider Galardik jaso zuenez: "Salbuespen neurriak kentzea, urrunketa eta bakartzea amaitzea, gaixo larri diren presoak askatzea, andre presoen auziari heltzea eta espetxean 29 urte daramatzaten Frederic Haranburu *Xistor*, Jakes Esnal eta Jon Kepa Parot baldintzapean aske uztea".

"Hasieran Espainiako gobernu berriak bakerako urratsak egiteko asmoak zituela bazirudien arren, milaka lagunengan piztu ziren esperantzak laster zapuztu zituen", adierazi zuten Bilbon manifestazio amaierako hitzartzean.

"Entzunak izateko eskatu genuen, jendartearen bakerako nahiari kasu egiteko, elkarbizitza eraikitzeko ateak zabaldu ahal izan ditzagun, ahanzturarik gabe, baina gorrotorik gabe", adierazi dute Sareko eledunek hurrengo eguneko balorazioan. "Inork ez zuen esan lan erraza izango zenik. Hasitako lan honekin jarraitzeko prest gaude, datozen belaunaldiei elkarbizitzan eta bakean oinarritako etorkizun bat utzi nahi diegulako". Azkenik, Espainiako Gobernuari, beste behin esan nahi izan diote, "larunbatean aldarrikatutakoari muzin egitea akats handia" izango litzakeela.

Bitartean, airean jarraitzen du galderak: zer egin behar du euskal gizarteak gatibu politiko gisa dauzkaten presoen askatasuna lortzeko? ●

orain
presoak

orain presoak
Etxean nahi ditugu!

Etxerat

EUSKAL PRESO
ETA IHESLARIAK
ETXERA

orain presoak
Paix en Pays Basque:
maintenant les prisonnier.e.s

BAKEGILEAK
ARTISANS PAIX

EUSKAL PRESO
ETA IHESLARIAK
ETXERA
EUSKAL PRESO
ETA IHESLARIAK
ETXERA
EUSKAL PRESO
ETA IHESLARIAK
ETXERA

MASTODONEK ERE EUSKARAZ EGITEN DU

Mastodon sare sozial bat da. Twitter ezagutzen baduzu azalpen asko eman beharrik ez dago, oso-oso antzekoak baitira. Ez dira gauza bera, ordea. Twitter tresnaren atzean dagoen enpresaren oso bestelako helburuak ditu Mastodonek. Oraingoz, euskaraz ari diren bi komunitate sortu dira sare sozial horretan: mastodon.eus eta mastodon.jalgi.eus.

TESTUA | **ONINTZA IRURETA AZKUNE** @oirureta

Bai, hala da. Mastodon sare sozialaren barruan daude mastodon.eus (1.500 erabiltzaile) eta mastodon.jalgi.eus (100 erabiltzaile). Nola uler daiteke hori? Bada, sare sozial hori deszentralizatua eta federatua da. Hau da, Mastodonen barruan nahi adina komunitate sortu daitezke eta dagoeneko sortuta daude. Hainbat irizpide edo helbururen arabera sortutakoak daude munduan zehar.

Komunitate horietako batzuren oinarrian hizkuntza komunitatea dago, adibidez, mastodont.cat (katalanez). Beste batzuk gaikakoak dira. Mastodonen garatzaile nagusiak, Eugene Rochko alemaniarrak, mastodon.social sortu zuen erabilera orokorrerako. Europa Mendebaldeko komunitate handiena da. Mastodon.eus eta mastodon.jalgi.eus euskaraz ari dira, eta euskal kultura eta euskara dituzte oinarrian. Komunitate batean izena emateak ez du esan nahi talde horretan isolatuta geratzea, Mastodoneko beste komunitateekin konektatzeko aukera guztiak ematen ditu.

TWITTERREKIKO ALDEAK

Jabetza beste modu batez ulertzen du Mastodonek. Komunitate bakoitzak administrazio talde bat du, komunitate bakoitzeko erabiltzaile kopuruak oso handiak ez izatea hobesten da, eta administratzaileak gertuagokoak sentitzen dira. Mastodon ez da sare komertzial bat. Ez dago ordaindutako iragarkirik eta erabiltzailearen datuak ez dira bestelako helburuekin erabiltzen.

Sare sozial horrek tresna euskaraz izatea bermatzen du. Twitterrek tresna euskaraz edukitzea bezala, erabaki dezake hala ez egitea, eta ez dago erabiltzaileen esku. Hain zuzen, pare bat atzerapauso emanak ditu: lehen ez bezala, orain mugikorrean ezin da euskaraz erabili, eta azken interfazea ez dute euskaratu.

Twitter gune desatsegina bihurtu da zenbait pertsona eta komunitaterentzat. Mehatxuak, jazarpenak, ez dira beti zorrotz jarraitzen eta hainbat erabiltzaile babesgabe sentitzen da. Pertsona eta talde horietako hainbatek Mastodonen aurkitu du babeslekua. Esate baterako, LGBT+ komunitateek kudeatutako gune asko daude Mastodonen.

ZER EGIN DAITEKE MASTODONEN?

500 karaktereko muga dute mezuek, antzeko beste sare sozialek baino tarte handiagoa. Kudeatzaileen ustez, horrek edukiak xehetasun handiagoz lantzeko aukera ematen du eta elkarrizketak sendoagoak izan daitezke. Irudi hunkigarriak edo mingarriak saihetsi nahi dituenarentzat, ohartarazteko mekanismoa dauka. Komunitate bakoitzak bere emojiak edo irudiak sortzeko aukera dauka. Mastodon.eus-ek ondokoak sortu ditu: ikurrina, ahobizi, belarriprest, Durangoko Azoka (DA!), Maridomingi, Olentzero, Mastodon eta Pixelfed (Instagramen alternatiba librea).

Pribatutasunari dagokionez, norbere kontua giltzapean jartzeko aukera dago. Horrez gain, beste hainbat neurri har ditzake erabiltzaileak: bidali duen mezu bakoitzaren pribatutasun maila zehaztu; bilatzaileen indexazio motorretatik atera; nor jarraitzen duzun eta nork jarraitzen zaituen ezkutatu daiteke.

Beste sare sozial batzuetan kontua ezabatzea ez da batere erraza. Mastodo-



nen kontuko datu guztiak atera daitezke eta kontua ezabatu.

ZEIN DIRA SORTZAILEAK?

Mastodon.eus egitasmoa 2018an gauzatu zen, azaroaren 21ean egin zuten aurkezpen ofiziala. Elkarlanean ondutako lana da. Ondokoak dira bultzatzaileak: Azkue Fundazioa, PuntuEUS Fundazioa, Iametza, Laborategia 2.0, Dinahosting eta Talaios Koop. Sare sozial horren jabetza eta kudeaketa ez da itxia eta egitasmoan parte hartu nahi dutenek ateak zabalik dituzte. Mastodon.jalgi.eus Izarkom Euskal Herriko telekomunikazio operadore kooperatiboak jarri zuen abian hilabete batzuk lehenago. ●

MASTODON, 2016

Eugen Rochko alemaniarrak, artean 24 urte zituela sortu zuen 2016ko urrian, egitura dezentralizatuan eta software librean oinarritzen den sare soziala. Datuak gutxi gorabeherakoak dira, kudeaketa zentralizaturik ez dagoelako, baina ia bi milioi erabiltzaile ditu, 6.442 komunitatetan banatuta.

Sortzaile alemaniarrak historiaurrean bizi eta ondoren desagertu zen mastodontea baliatu du sare sozialararen irudirako. Hain zuzen, horregatik, Mastodon bidez "toot" izeneko (ingelesez) mezuak argitaratzen dira. "Toot" da nolabait ugaztun hark ateratzen zuen soinua. Mastodon.eus-en inkesta egin zuten eta "tut" nagusitu zen, baina "orro", "marru" eta toot" ere erabiltzen dira.

Hondarribia
euskaraz bizi
Hondarribiko Udala
UDAL EUSKARA ZERBITZUA
HONDARRIBIA

Independentziaren bermea

Mirentxu Purroy eta Mariano Ferrer euskal kazetaritzaren historia bizia dira. Beti jardun izan dira alderdietatik eta alderdikerietatik aparte, independentzia gordez, baina justiziaren eta demokraziaren aldeko konpromiso pertsonal eta politiko irmoari eutsiz. Bermea izan dira beren entzule eta irakurleentzat, zintzotasunaren ispilu eta aho bizarrik gabe aritu izan dira, *Alda* aldizkariko elkarrizketa honetan egiaztatu dezakegunez. Creative Commons lizentzia libreari esker ekarri dugu ARGIAra.

TESTUA I **IVAN GIMENEZ, *ALDA* ALDIZKARIA**
ARGAZKIAK I **JAGOBA MANTEROLA - FOKU**

Zer iritzi duzue komunikabideek 40 urteotan izan duten bilakaerari buruz?
M. Ferrer: 1970eko eta 1980ko hamarkadetan, kazetaritza gizartearen eta demokraziaren zerbitzurako tresnatzat hartzen genuen, bai hemen bai Espainiako Estatuko beste leku batzuetan. Gerora, lanbide honetan ere normalizatzen joan zen zatiketa politikoa: askatasunak sendotzeko helburu bateratutik aukera politiko jakinak babestera pasa ginen. Ondoren, 90eko hamarkadaren erdialdetik aurrera, are nabarmenagoa bihurtu zen hedabideen jabetzaren kontzentrazioa eta, hala, botere ekonomiko oso jakinak jabetu egin ziren komunikabideez. Hedabideak bihurtu ziren interes politiko alderdikoien eranskin eta, geroago, baita interes ekonomikoen euskarri ere.

Aldi berean, lanbidearen baldintzak gero eta prekarioagoak bihurtu dira.
M. Ferrer: Bai, mundu guztiak jasandako krisiaz gain, gure lanbidean oso gaizki kudeatu zen alderdi digitala. Horrek eragin zuen krisia behar baino handiagoa izatea, eta prekarietatea areagotzea: soldata txikiak, lan-segurtasunik batere ez, eta informazioa oso denbora tarte laburrean eman beharra, besteak beste. Orain oso arraroa da egunkarietan (eta zer esanik ez, gainerako hedabideetan) albisteak edo esklusibak aurkitzea, eta, horren ondorioz, gaur egun beste bat da joera: jakinak diren gertakariak ikusgarri bihurtzea. Hortik dator informazioaren kalitatearen beherakada.
M. Purroy: Prekarietatearekin batera etorri zen lanbidearen sinesgarritasun galtzera, eta fenomeno hori larriagotzen joan da politika profesionalizatzen joan den erritmo berean. Duela ez hainbeste urte, kazetariok eskura genituen informazioaren jatorrizko iturriak (politikariak, lehen eskuko iturri fidagarriak eta abar), baina pixkanaka komunikazio-kabineteen, prentsa-ohar ofizialen eta abarren diktadura gailentzen joan da.
M. Ferrer: Hainbesteraino, ezen kazetaria ez baita jada erredakziotik ateratzen, eta prentsa-ohar ofizialen, agentzietako albisteen eta abarren artean itota dago. Jada ez da albisterik bilatzen. Gainera, erakundeen informazioa argitaratzeak ez du inoiz arazorik sortzen, eta hala, lanbidea gero eta erosoago bihurtzen ari da.

Zer beste arrazoi dago lanbideak sinesgarritasuna galtzeko?
M. Purroy: Dudarik gabe, adierazpenei oihartzun egiten dien kazetaritza. Nik ez nuke onartuko politikarien edo pertsona famatuen adierazpenei hainbeste leku ematea. Ematen du lauk esaten dutena, hori dela garrantzitsua, eta ez benetan gertatzen dena. Egoeraz baliatu nahi duten lau oportunistak erabakitzen dute zer den albiste, eta besteok... onartu egin behar dugu?
M. Ferrer: Zer da albistea? Jendeak edozein esparrutan (politika, gizartea, kultura…) herritar kontziente eta aktibo gisa jokatu ahal izateko jakin behar duena. Ez da nahikoa gertakari edo datu berriak ematea; aitzitik, arrazoiak eta kausak ere azaldu behar dira.

Irratiak, telebista, webguneak, egunkariak... komunikabide guztiak dabiltza gobernuek, berdin estatukoek nahiz autonomikoek, emandako informazioaren orbitan.

M. Purroy: Hor, zalantzarik gabe, telebista da boterearekiko morrontzaren adibide garbiena. Gaur egun, botereak berak fabrikatzen ditu albisteak, eta gero etengabe irentsarazten digute eskura dituzten tresna guztiak baliatuta: tertuliak, txisteak... Kate publikoak nahiz pribatuak, denak dira boterearen mirabe. Baina hemengoaz ari bagara, ETBri lasai ederrean dei diezaiokegu Arantxa Tapia Telebista. Herrialde oparoaren irudia eta abar saldu behar du, ados, baina egunero izan behar al du albiste? Euskal Herrian ez da beste ezer existitzen, antza denez. Eta hedabide publiko bati buruz ari gara.

> *ETBri lasai ederrean dei diezaiokegu Arantxa Tapia Telebista; herrialdean ez da beste ezer existitzen*
>
> MIRENTXU PURROY

Nolakoa izan behar du hedabide publiko batek?

M. Ferrer: Tira, Teleberria pintxo-ostatu bat bihurtu da. Lotsagarria da.

M. Purroy: Albert Camusek esaten zuen kazetariak izan behar duela herriaren bozgorailu emozionala, eta hedabide publikoek errealitatea islatu behar dutela, unean uneko Gobernuaren gustukoa izan ala ez. Orain daukaguna alderdi-kuotak dira. EiTBn horrela banatzen dira minutuak. Bai, lotsagarria da, kazetaritzaren kontrakoa. Hemen, hedabide publikoa alderdi bati lerratua dago, beraz ez da publikoa.

M. Ferrer: Nik arrisku batzuk hartuko ditut. Ez nituzke onartuko informazio-bide publikoak. Gobernuaren mende dagoen bitarteko batek ezin du inpartziala izan. Adibidez, telebista publikoak eduki ez errentagarriak lantzera mugatu beharko luke, beste inork egingo ez dituenak egitera: kultura, dokumentalak, artea... Bestelako gauzak esan behar lituzke, berehalako errentagarritasunaren mende ez daudenak, baina gizarte batentzat beharrezkoak direnak.

Emakumeak zergatik ez du hedabideetan dagokion lekua aurkitzen, fakultateetan gehiengoa izan arren?

M. Purroy: Azken 40 urteotan ez dugu hobera egin, baina hipokritagoak gara. Emakumeek ez dituzte zuzendaritza-postuak betetzen oraindik ere, eta betetzen dituztenean, seguru askoz gutxiago kobratzen dutela. Nik neuk ere, *Egin*en, zuzendari postua bete zuten gizonezkoek baino gutxiago kobratzen nuen. Frankismoaren kultura-substratuak bere horretan dirau. Bide luzea dugu egiteko.

M. Ferrer: Bistan denez, gai hau askoz nabarmenago azaleratzen ari da azkeneko bizpahiru urteotan, feminismoa indarra hartzen ari den honetan. Nolanahi ere, duela ez hainbeste, egiaztapen bat egin nuen: *El País* egunkariaren ale bat hartu nuen, ausaz, eta emakume baten lehen argazkia 39. orrialdean agertzen zen. Horri buelta emateko lan handia egin beharko da.

Biek gaztelaniaz egin izan duzue lan. Zer harreman duzue euskararekin?

M. Ferrer: Nire ingurunea erdalduna izan da beti, eta nire xalotasunean, uste nuen euskaraz nik bakarrik ikas nezakeela. Hainbat ahaleginen ondoren, gaur euskaraz irakurtzen dut, ondo ulertzen dut eta euskaraz bizi naiz egunean bizpahiru orduz, baina erraztasuna falta zait.

M. Purroy: Gu euskararen belaunaldi galdua gara edo, hobeto esan, belaunaldi debekatua. Nire Nafarroan ezinezkoa zen euskaldun bat aurkitzea. Ni oso gazterik hasi nintzen lanean, eta gorriak eta bi ikusitakoa naiz euskaraz ikasteko ahaleginean. Euskaraz erraztasunik ez izateak umiliazioak ekarri izan dizkit lanbidean, eta zenbaitetan gutxietsi ere egin izan naute horregatik. Euskaraz irakurtzen dut, ulertzen dut, baina beti zailtasunekin. Hortxe dago, gauero, nire ohe ondoko mahaitxoan.

> *Emakumeon eginkizuna hedabideetan? Ez gaude duela 40 urte baino hobeto, baina hipokritagoak gara*
>
> MIRENTXU PURROY

Politikara etorrita, zuen iritziz Espainiako Estatua krisian dago, edo beti bezain indartsu?

M. Ferrer: Kataluniako adibidea baliatuta: ez zekiten Estatu bat hain indartsua izan zitekeenik. Guk hemen, gure apalean, bagenekien. Alde horretatik, Estatua oso indartsua da, beti bezala, baina aldiz, Espainiaren ideia gero eta ahulagoa da. Bada halako behin-behinekotasun sentsazio bat. Ebaki hori zaindu egin behar da, asko gaiztotu daiteke-eta, ikusten ari garen moduan.

M. Purroy: Estatuak Kataluniak baino

askoz gehiago galdu du. Matxinadagatik 30 urte eskatzea ahulezia horren adierazle da. Estatu frankistak premia sentitu duenean azaleratu du bere boterea eta indarra, bere burua kolokan ikusi duenean. Ez du ez forma, ez konponbide, ez justizia demokratikorik. Orain egiaztatu dugu trantsizioa zoru ustelaren gainean itxi zela. Eta uste dut belaunaldi honek ezin izango duela konpondu, supremazismo espainiarra gailentzen delako.

Euskal oasian bizi gara, ala propagandaren eragina da irudipen hori?
M. Ferrer: Hor zerikusi handia izan du ETAren amaierak. Urte askotan asaldatuta, kezkatuta, beldurtuta... bizi izan gara. Heriotza, espetxea, errepresioa, beldurra... horiek ziren eguneroko gaiak. Hori bukatu da, baina euskal gizartea nekatuta dago, ajeak jota bezala. Ezkortasuna nabaritzen da, etor daitekeen edozein aldaketaren aurrean. Eta EAJk ondo interpretatu du: har dezagun lasai. Eta horri krisi ekonomikoa gehitzen badiogu, diskurtsoa, ezinbestean, horretara mugatu da: "gure txarrean, ez gaude gaizki". Eta hori guztia praktikara eramateko, Urkullu lasaigarri perfektua da.
M. Purroy: Hibernazioan gaude, zerbaiten esperoan bezala. Ziurgabetasun ekonomikoak kezka sortzen du, eta gazteei horixe erakutsi diegu: ez zaitezte gehiegi mugitu, ez du merezi eta. Herrialdea gelditu egin da bat-batean, eta gu pintxoak jaten, dibertitzen eta hiriak dotore jartzen aritu gara. Agian jasandako urte gogorrei emandako erantzuna izan da. Testuinguru horretan, EAJ familien sare bat da eta familiako kideak politikan kokatzea da sare horren xedea. Ezer gutxi gehiago. Eta Urkullu galga argia da edozein ekimen geldiarazteko. Lehendakariak mendeko izatearen lasaitasuna dakar.

Badago oposizio politikorik Euskadin?
M. Ferrer: Ez dago oposiziorik. Erabakitzeko eskubidearen aldeko trena jar daiteke martxan eta abiarazi, baina EAJ, PSOE eta PP galga ezartzen ari dira, tren hori geldiarazteko.
M. Purroy: Ezker abertzalea izan daiteke oposizioa, baina oraindik ere motxila astuna du gainean. Motxila desegiteko, mahaian beste jaun-andreekin batera eser daitezkeela erakusteko fasean daude. Izan ere, jakina, oposizio handia egiten baduzu, leku hori kendu egiten dizute.
M. Ferrer: Ezker abertzalea neutralizatuta dago bere azken hamarkadetako historiaren eraginez. Merituak biltzen ari dira gaur-gaurkoz egin ezin duten borroka bati aurre egiteko. Gainera, ezker abertzaleak ahaztu samar dauka gai soziala, ez du artikulatu, eta ez du politikara eraman.

> *ETAren ondoren, euskal gizartea ajeak jota dago, eta EAJk ondo interpretatu du; Urkullu lasaigarri perfektua da*
>
> MARIANO FERRER

Zuen bizitza profesional guztian ETA izan zen agendan lehen lerroko gai nagusia, eta orain jada ez da existitzen.
M. Ferrer: ETA hor zegoen egunero, baina zer diren gauzak, *Egin* kaleratu genuen lehen egunean ez zegoen inolako albisterik, eta erdi asmatu behar izan genuen Leizaola Euskadira etortzekoa zela. Anekdotak alde batera utzita, nire bizitzan hori baino ez dut ezagutu: frankismoaren 40 urte eta ETAren 40 urte.
M. Purroy: ETAk eragin izugarria izan du nire bizitza pertsonal eta profesionalean, eta herrialdea hipotekatu du. Nik, *Egin*eko zuzendari izan nintzelako, ezin izan nuen gero lanik aurkitu urte askoan.

1975ean, sinatuko zenuketen Euskal Herria 2018an gaur egun den modukoa izatea?
M. Ferrer: Ez. Nik espero nuen Espainiako demokrazia kalitate handiagokoa izango zela, eta Euskal Herrian ez ginela mugatuko Espainiako eredu burokratikoa gure erakundeetan erreproduzitzera. Eta jakina, ez nuen aurreikusten ETAren bilakaera horrelakoa izango zenik.
M. Purroy: Nik ere ez. Pentsatzen nuen euskal politikariak gizatasun eta kultura aldetik beste itzal batekoak izango zirela, baina burokrata handiuste batzuk izan dira. Negargarri aritu dira, kale eta kale. Alferrik galdu da berezko talentu eta lidergo ugari. Eta ETAri buruz, gauza bera, sortutako gatazkak eragotzi egin du herriak aurrerapausoak ematea. ●



NOHEMÍ PÉREZ

HONDURASKO GIZA ESKUBIDEEN DEFENDATZAILEA

CEAR-EUSKADI

LUZE IRAUN DEZAKEEN ARREN, BORROKA MANTENDU BEHAR DUGU

Nohemí Esther Pérez Borjas hondurastarra giza eskubideen defendatzailea da. 1982an, AEBek Hego Ameriketan bultzatutako Segurtasun Nazionalerako Doktrinaren testuinguruan, bere neba Samuel desagerrarazi zuten. Anaia bilatzeko saiakerak oso gaztetatik bideratu zuen ekintzaile jardunera, eta egun arrisku egoeran da giza eskubideen defentsan borroka egiteagatik. Euskal Herrian izan da sei hilabetez, Giza Eskubideen Defendatzaileentzako Aldi Baterako Babeserako Euskal Programaren baitan.

TESTUA | **AMAIA LEKUNBERRI ANSOLA**

CEAR Errefuxiatuei Laguntzeko Euskadiko Batzordeak Bilbon duen egoitzan egin dugu bilkura, luzez iraun duen hizketaldiari bide emanez. Ez da gutxiagorako, hondurastarrak ekintzaile modura 36 urteko bide luzea du atzean, eta sufrimendu haina esperantza biltzen duen motxila bete lepoan. Atzera begira jarri eta honaino ekarri duen ibilbidearen nondik norakoak azaldu ditu, Hondurasek bizi duen egoera politikoa ezagutzera emateko balioko duelakoan, premiazkoa deritzon egitekoa: "Hemen, Europan, jende askok ez daki Honduras existitzen denik ere. Are gutxiago zer bizitzen ari garen".

Hamalau urte zituen Pérezek bere neba Samuel desagerrarazi zutenean. 1982a zen, eta Gerra Hotzaren testuinguruan AEBek Hego Ameriketako hainbat herrialdetako indar armatuak kutsu iraultzailea izan zezakeen oro gudukatzera bideratu zituzten, Segurtasun Nazionalerako Doktrina deiturikoaren bidez. Helburu horri jarraiki, talde paramilitarrek sistematikoki urratu zituzten giza eskubideak, tortura, hilketa eta desagerketa andana eraginez. Tartean harrapatu zuten hemeretzi urteko Samuel, giza eskubideen inguruan formatzera Kubara joan izanak jo-puntuan jarri baitzuen. "Kuba edo Nikaragua bezalako herrialdeetara joaten zena komunistatzat jotzen zen, subertsibotzat. Jendeak pentsatzeko eta beste ideologia bat izateko eskubiderik ez balu bezala", azaldu du honen arrebak. Kubatik bueltan, Honduras eta Nikaragua arteko Guasauleko mugan autobusetik jaitsarazi zuten Samuel, Kuban ezagutu zituen beste lau hondurastar gazterekin batera. Bostak desagerrarazi zituzten.

"Aita futbol partidu bat jarraitzen ari zela", irratiko albistegiaren bidez izan zuten etxean Samuelen desagerpenaren berri, eta ordutik ez dute ezer gehiago jakin. Familiak galdutako kidea bilatzeari ekin zion, eta denborarekin ohartu ziren ez zirela senideren bat desagerturik zeukaten bakarrak. Egoera berberean zeuden pertsonak biltzen joan ziren, eta 1982ko azaroaren 30ean COFADEH (Hondurasen Atxilotu eta Desagertutakoen Familien Komitea) sortu zuten. Bertako partaide da ordutik Pérez, eta honen baitan bilakatu da giza eskubideen defendatzaile. "Politikoki trebatu naiz COFADEHn, baina besteak beste erasoak, mehatxuak eta jazarpena pairatu behar izan ditut nire jardun politikoagatik, babes neurriak behar izateraino", azaldu du. 2009ko Estatu Kolpe militarra tarteko, Giza Eskubideen Batzorde Interamerikarrak babes neurriak ezarri zizkion, eta arrisku egoera horrek bere horretan dirauenez, gurean izan da sei hilabetez.

EGOERA POLITIKO LATZA

Dio Pérezek herrialde eder batekin egiten duela amets, bere hitzetan "Samuelen eta desagertutako guztien ametsa" izan dena. Horregatik, etxera buelta egin eta "Honduras berrantolatzeko prozesura" batzeko gogoz dago, herrialdeak 2009ko estatu kolpeaz geroztik izandako bilakaera irauli asmoz. Urte hartako ekainaren 28an orduko presidente Manuel Zelaya bahitu eta atzerriratu zuten Honduraseko Indar Armatuek, eta Hondurasko Kongresuak Roberto Micheletti jarri zuen gobernuburu azaroko hauteskundeak arte. Herrialdea setio-egoeran murgildu zen aste batzuez, eta errepresioa biktimak eragiten hasi zen kolpearen aurka altxatzen zirenen artean. Azaroaren 29an, Alderdi Nazionaleko Profirio Lobo izendatu zuten gobernu-buru, kolpearen oinordekoen segidan lehen katebegia.

"ERASOAK, MEHATXUAK ETA JAZARPENA PAIRATU BEHAR IZAN DITUT NIRE JARDUN POLITIKOAGATIK, BABES NEURRIAK BEHAR IZATERAINO"

Zerabilen politika ezkertiarra gustuko ez zutelako, "estatu kolpea ematearekin bat, kolpearen aldeko agintariek Mel (horrela deitzen diote Zelayari herritarrek) arriskutsua zela esateari ekin zioten. Honduras Kuba edo Venezuela bezalako herrialde komunista bilakatzen ari zela, eta aipatu herrialdeekin harremana izateak jendearen jabetzak arriskuan jartzen zituela errepikatu zuten ase arte". Jendeak ideia hori barruraino sartua zuela antzematen hasi zen Pérez, lagun artean ere zenbaitzuk berarekiko distantzia hartu zutela ohartuta. "Egoera inoiz baino txarragoa zela konturatu nintzen", dio.

Testuinguru horretan heldu zen 2013. urtea, eta hauteskundeak izan ziren ostera. "Hauteskunde iruzurtiak izan ziren, Estatu kolpetik hona eman diren guztiak bezala", gogoratu du. Alderdi Nazionaleko Juan Orlando Hernández atera zen garaile, egun arte karguan mantendu dena. "Eskuin muturreko gizon honek Estatuko diru-kutxa garbitzeari ekin zion, segurtasun sozialetik lapurtu zuen, eta jendeak kuota ordaintzen jarraitzen duen arren inoiz ez dago medikamenturik. Hutsunea betetzeko, beraietako zenbait drogerien jabe direnez, irinezko pilulak fabrikatu zituzten, 3.000 hildako eraginez. Eta honen gainean ez dago ez ikerketa ez erantzulerik", salatu du. "800 milioi lempira lapurtu zituzten beste kanpaina politiko bat ordaintzeko, lematzat 'lau urte gehiago' zeukana", dio suminduta. Esan eta egin, 2017ko hauteskundeetan Hernández beste lau urtez agintean mantentzea lortu zuten.

Azken hauteskunde horiek izan zuten berezitasunik. Ordurako Diktaduraren kontrako Oposizioko Aliantza eratua zen, "eta jakina zen honek irabazteko guztiak zituela". Baina bozketa egunaren amaieran, botoen kontaketa martxan eta Aliantza irabazten zihoala, itzalaldi informatikoa eman zen. "Momentuan jakin genuen zer gertatuko zen, biharamunean eskuinak irabazi zuela jakinarazi zuten", azaldu du. Gertakaria hauteskunde-iruzurtzat jota, protestak eta istiluak sortu ziren kalean. Manifestarien kontrako errepresioak milatik gora atxilotu, ehunka zauritu eta 30etik gora hildako eragin zituen. "Ikaragarria berriz berdinera buelta egitea, esan daiteke errepresioa ohiko zerbait bilakatu dela Hondurasen", atsekabetu da. Alabaina, jendea "esnatu" egin dela nabarmendu du: "Erratu egin ziren herria isilik geratuko zela pentsatzean".

GIZA ESKUBIDEEN DEFENTSA, JARDUN ARRISKUTSUA

Azken hamarkadako testuinguru politikoak kriminalizazioa, desagerketak eta hilketak eguneroko ogi bilakatu ditu ostera ere Hondurasen. Herritar xumeek ez daukate erraz: "Honduras inpunitate, pobrezia eta indarkeria handiko herrialdea da. Armak erosteko dirua dago, baina ez osasun, hezkuntza eta elikadura bermatzeko. Guztia pribatizatu dute. Eskaintza onena egiten duenarentzat salgai jarri dituzte gure lurrak, transnazionalak nahieran dabiltza gurean. Hori gutxi ez, eta kargu publiko asko, kontseilariak tarteko, desagerketekin lotura duten norbanakoek betetzen dituzte", azaldu du. Egoera hori izanik, ezinbestekoa deritzo giza eskubideen defentsan mantentzeari, nahiz eta etengabe kriminalizatzen dituzten.

"Ez dituzte giza eskubideen defendatzaileak errespetatzen, etsaitzat gaituzte. Eraildako 120 defendatzailetik gora ditugu, eta hainbatek erbestera jo behar izan dute. Zenbaitek, baina, ez dute atzerrira joan nahi erresistentzian jarraitu ahal izateko. Edozer gerta ere, beraien herrialdean borrokan jarraitzearen aldekoak dira". Berta Cáceres jarri du adibidetzat, 2016an eraildako ekintzaile ekologista eta giza eskubideen defendatzailea. "Berta Cáceresek hitzaldi bat ematen zuenero, hil egingo zutela ohartarazten zuen", azpimarratu du.

Bere zaurgarritasun egoeragatik babes programak Euskal Herrira ekarri duen arren, jatorrira begira mantendu da Pérez, borrokaren lehen lerrora noiz itzuliko zain: "Luze iraun dezakeen arren, borroka mantendu behar dugu". Erresistentzia jardun horretan oroimen historikoa sustatzeari ezinbes-

MIGRAZIOA
DIKTADURA BISTARATZEN

Hizketaldian zehar sarri mintzatu da migratzaileez Pérez. Bere arabera, Hondurasek bizi duen egoerari mozorroa kentzen ari da migrazioaren afera. AEBetara abiatutako migratzaileen karabanak "Hernándezen diktadura ez ezik, gobernuak inperialistengandik jasotzen duen babesa" ere agerian utzi duela dio. "Migratzaileen abiada gelditu ezean laguntza ekonomikoa kentzearekin mehatxu egin diote gringoek Hernándezen gobernuari", azaldu du. Trumpen mehatxuen aurrean, "Honduras da Iparra" lema darabilte orain.

"Ezin daiteke esan migratzaile horietako gehiengoak kontzientzia politikoa zuenik, haiek indarkeria eta goseagatik egiten dute ihes. Baina bidean jabetu dira gure herrialdearen egoera negargarriaz, AEBen eta agintarien politika kaltegarriez", dio.

tekoa deritzo: Oroimenaren Ibilbidearen sortzaileetako bat izateaz gain, hilabeteko lehen ostiralero Tegucigalpan egiten den egia eta justiziaren aldeko elkarretaratzearen koordinatzailea da 1982tik. Denborarekin, izatez Plaza de la Merced deiturikoari Desargetuen Plaza izena eman diote, gaur gaurkoz jende askok bigarren izen hau darabilelarik. "Jendeari ulertarazi diogu plaza horretan gure desagertuak erresistentzian mantentzen direla, egiazko justizia eske", dio harro. "Historiak jaso ditzan, Hondurasen eman diren giza eskubideen kontrako krimenak jakitera ematea", horixe du borrokarako erregai iturri.

"EUROPAN, JENDE ASKOK EZ DAKI HONDURAS EXISTITZEN DENIK ERE. ARE GUTXIAGO ZER BIZITZEN ARI GAREN"

Elkar agurtu aurretik esperantza galtzen azkena dela gogorarazi nahi izan du: "Semea galdu zuen nire amari negar malkoak agortu zitzaizkion, eta neure buruari galdetzen diot ea noiz agortuko zaizkidan niri. Edonola ere, nire esperantza ez da agortuko. Azken momentura arte borrokan jarraituko dut. Bizi dudan eta bizitzen ari naizen txar oro alde batera, sinetsi iezadazu ez naizela ahulduri ikusten". ●

COFADEH-REN IBILBIDEA

Nebaren bila ekindako bideak familia ahuldu zuela dio Pérezek. Esan daiteke, hein handi batean, COFADEH bilakatu zela beronen bigarren etxe. Hastapenetatik gaur arte, barrutik bizi izan du komiteak egindako ibilbidea. Estatu terrorismoaren kontrako borroka ardatz, komiteak aurrera eramandako zenbait eginkizun esanguratsu zerrendatu ditu.

90eko hamarkadan deshobiratze lanei ekin zieten, hainbat kasutan gorpuak identifikatzea lortuz. 80ko hamarkadan desagertutakoen kontaketa ere egin dute, 184 pertsona erregistratzera helduaz. Alabaina, komiteak zifra altuagoa dela uste du: "Hori zerrenda ofizialak jasotzen duen datua da, baina komitean kasu gehiago eman zirelakoan gaude. Familia askok, beraien senideari gertatutakoa errepikatzearen beldurrez, salaketarik jarri ez dutela uste dugu". Horrez gain, giza eskubideen alorrean formakuntzak ere ematen dituzte, agintearen jo-puntuan jartzen dituen eginkizuna: "Formakuntzarena ez dute gustuko, beren eskubideak exijitzen ez dituen herri ezjakina nahi dutelako".

COFADEHren jardunak aginteari eragiten dion deserosotasunaren ondorioz, etengabe beraien kontrako kanpainak jasan behar izaten dituztela dio. Alabaina, nazioartean ere babesa daukatela azaldu du: "Desagertuen eta Atxilotuen Elkarteen Latinoamerikako Federazioko kide gara, eta babes sareak sortu ditugu".

Basherri sarea
GIPUZKOAKO KONTSUMO TALDE ETA KOOPERATIBAK
info@basherrisarea.eus · www.basherrisarea.eus
HEMENGOA ETA EKOLOGIKOA, GOZATU GUREAZ!

ZUHAITZA LAGUN

JORGE OTEIZAK ERE BESARKATZEN ZITUEN ZUHAITZAK.

JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Gero eta gehiago dakigu landareen bizimoduaz, baina makina bat kontuk alde egiten diote gure jakituriari, orain-dik. Gero gerokoak, baina egundoko informazio mordoa eta jakintza itzela gure garunetik urrun da. Azken puntako berria da landareak perretxikoen bidez sustraitik sustraira komunikatzen direla, baita airera askatutako gaien bidez ere... Adimentsuak dira eta sentitzen dute. Egungo jende asko joango da zulora edo labera horrelako gauzak esaten dituena seko txoratuta dagoen uste sendoarekin. Jaioko al dira berriak...

Boladan dago zuhaitzen onurak eskuratzeko horiekin eman-hartuak sortzeko joera. Ni zuhaitzak nolakoak diren eta zein egoeratan dauden edo dauzkagun ulertzen ahalegintzen naizen horietakoa naiz. Zuhaitzaren formak, garaierak, itxurak, osasunak, bizitokiak, inguruko landare kuadrillak, eta abarrek informazio asko ematen digute bere bizimoduaz. Hortik abiatuta bera ulertzen saiatzen naiz, baita zer etorkizun izan dezakeen ere, eta hori beltz samarra bada nola hobetu edo oneratu beharko litzatekeen aburuz aritu. Bide hori guztia osatzen dut, zuhaitzak niri buruzko antzeko aburua di-da batean badakiela jakinik. Izan ere, beti, inolako zalantzarik gabe, beti ni baino azkarragoa da edozein zuhaitz, dena delako generokoa izanda ere. Eman-hartu hori errazago ulertzen da ereinez edo landatuz edo txertatuz bakoitzak sortzen duen zuhaitzarekin. Egunez egun etxeko bezala duzun horrekin. Egin ezazu proba. Hemendik urte batzuetara hitz egingo dugu...

Zenbaitek betiko erlazioa sortzen dute eskuera duten zuhaitz batekin. Diotenez, jendea inguruan izatera ohituak dauden zuhaitzek errazago ulertzen gaituzte, eta gurekin energia partekatzera prestatuago omen daude. Dagoeneko ez da harritzekoa zuhaitz handiei besarkatuta dagoen jendea ikustea. Edo bere abaroan meditatzen. Gehiago dira hamaiketakoa edo siesta bere sustraien gainean egiten dutenak. Inkontzienteki jasoko dute onura. Eta biaoa edo hausnarra zuhaizpetan egiten duen aziendak ba ote du horren berri?

Pakistango Hunza jendeak ohiko du hil den etxekoaren gorpua erre eta gero errautsak lursail batean zabaldu eta bertan zuhaitz bat landatzea. Gero zuhaitz hura etxeko haren ordezkoa izango da, eta gozo-gozo besarkatuko dute.

Zuhaitza lagun egitearen kontu hori ederra izango da zalantzarik gabe, baina alde bakarreko emanartua bihur daiteke; hau da, zuk zuhaitza maitatu eta berak zu ez. Baina nola ezin digun bizkarra eman eta alde egin... ●

NBE-REN ADIERAZPENA

BASERRITARRA ESKUBIDEDUN SUBJEKTU

GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Azaroan onartu zuen Nazio Batuen Erakundeak Baserritarren Eskubideen Adierazpena, eta ordutik, erabakia berrestea zen Batzar Orokorrari geratzen zitzaiona. Abenduaren 18an eman zuen erakundearen organo nagusiak azken pauso hori, nazioarteko baserritarren mugimenduaren aldarrikapen historikoari erantzuna emanez. Hamazazpi urtetako borroka luzearen ondoren iritsi da adierazpena, Via Campesina nazioarteko baserritarren mugimenduak gogorarazi duenez.

BASERRITARREN EKARPENARI AITORTZA

Baserritarrek eta landa eremuan lan egiten duten pertsonek bizi duten zaurgarritasun egoera onartzeaz gain, nekazari txikien garrantzia azaleratu du NBEk ebazpenean. Pobrezia, gosea, elikadura desegokia edota herrien hustutzea bizi dituzten bitartean, baserritarrek mundu osoan ekoizten diren elikagaien %70 sortzen dituztela azpimarratu du.

Adierazpenak biltzen dituen eskubideen artean daude, besteak beste, laborariek haziak euren eskuetan edukitzeko, lurretara sarbidea izateko, elikadura burujabetzarako eta beren lurraldeari eragiten dieten gaietan partaidetza izateko eskubideak edota agrokimikoen duda egitekoa eta agroekologia bultzatzekoa. Alazne Intxauspe Bizkaiko EHNEko eta Via Campesinako kideak honela laburbildu zuen 97.0 Irrati Libreko Lur eta Murmur saioan lorpena: "Bereziki azpimarratuko nukeena da baserritarra eskubideak dituen subjektu bezala aldarrikatzen duela".

EUROPAKO HERRIALDEEN ARTEAN ABSTENTZIOA NAGUSI

"Badakigu erabaki hau ez dela estatu guztientzat loteslea, eta zeintzuk izan diren abstenitu diren estatuak. Beraz, lortutakoarekin pozik gaude, baina kritikotasun batetik ere egiten dugu azterketa", adierazi zuen Intxauspek elkarrizketan. Izan ere, esanguratsua da Espainiako eta Frantziako estatuak eta Europako beste asko ere abstenitu egin zirela bozketan. AEB, Erresuma Batua, Israel, Guatemala, Hungaria, Suedia, Zeelanda Berria eta Australia, berriz, aurka azaldu ziren.

Via Campesinako kideak argi du, dena dela, adierazpena loteslea ez izanagatik ere instrumentu ofiziala dela, eta hemendik aurrera lanean jarraitu beharko dutela gobernuei adierazpenenan biltzen direnak bete ditzaten eskatzeko. "Artikulu asko ditu adierazpenak, eta horiek marko batzuk jartzen dituzte, eskubide batzuk aitortu baserritarrari. Gure lana da orain hori guztia betearaztea". ●

EUSKAL HERRIKO AGENDA

URTARRILAK 23
ZORNOTZA
Bizkaiko Txotx irekiera
11:00etan, Uxarte sagardotegian

URTARRILAK 25
AINHIZE-MONJOLOSE
Arbolaren betebeharra etxaldean eta landatze proiektua sortzea formazio saioa
9:30ean, Euskal Herriko Laboratzan Ganbaran
IZENA EMATEKO:
etienne@ehlgbai.org
05 59 37 18 82 / 07 82 94 86 77

URTARRILAK 25
GASTEIZ
Hazi ekologikoen sorkuntza
18:00etan Dehesa etxean (Olarizu)
IZENA EMATEKO:
haziensarea@gmail.com
688 855 226

URTARRILAK 26
ERRENTERIA
Zuhaitz landaketa
11:00etan Gaztañoko Sorgunean.

URTARRILAK 26
EZKIO
Ba al dakizu arrantzaleek arto hostoak erabiltzen zituztela atunak harrapatzeko? Arto malutak egiten ikasiko duzu.
7-12 urte bitartekoentzat lantegi didaktikoa.
16:30ean Igartubeiti Baserri Museoan.

ASTEKO PORTADA HAUTATUA

ZERUKO ARGIA

Illeroko Aldizkingi Edergarriduna

Aita Kaputxinoak Jezendua.

1 Urtea ..1919.. 1 Zenbakia

ILBELTZA

EUSKALDUN GUZTIOI AGUR

KOLDO IZAGIRRE

1919ko urtarrila

Komentu bat Lekarozen, kaputxino gazte multzoa euskaldun jendearen kantuak eta erran zaharrak biltzeko gogotan, herri musikari apaindura kultua emateko asmotan... Lehengaia eskura zeukaten baztandarren ahoan. Uztak ondorio zekarren komentua lantegi bilakatzea: gure kulturaren gotorleku txiki bat Lekarozen. Nafarroa eta bere harroa.

Zerua, elizen kupulen kupula unibertsala, euskarri teologikoa, gizakiaren azken esperantza eta munduosteko sagastia. Argia, gizakien gauzak biluzten dituen indarra. Zerua eta Argia, binomio zenitala gordintasuna barreiatzen munduko zokoetan egia eta gezurra bereizi nahian.

Argitan bizi, heriotza gainditu, herri gisa iraun, fedea kakoan eskegi, hizkera bat sortu... Historia konplexu eta aberats batek, gure kazetaritzaren ibili apal eta ausartak erdietsi du XXI. mendean *Zeruko Argia* aipaturik edo entzunik edo irakurririk Jainkoarekiko eta are Elizarekiko lotura egin ez dezagun, eta bai agerkari historiko batekin.

Munduko bazter guztietan zebiltzan gure misiolariak zirela Euskal Herriaren enbaxadoreak, esan zuen Telesforo Monzonek. Alabaina, mundukoa ez zen heldu zerutik, ilunpea ulertzeko ausartu genituen hitz zikinetarik baino. ●

ARGIAK 100 URTE

1980-AN ARGIA HARTU ZUTEN LANGILEAK

Eskerrak ordukoei

ARGAZKIAN: DONOSTIAKO VIRGEN DEL CARMEN KALEKO *ARGIA*REN EGOITZAN ETA HILABETE PARE BATEKO ETENAREN ONDOREN ATERATAKO AZALAREKIN ETA AFIXAREKIN: "AGUR T'ERDI, HEMEN GATOZ (BERRIZ)". MAHAIAN MAKURTUTA JON BARANDIARAN, HAREN ONDOAN JOSEBA ALVAREZ, ERDIAN JOXEMI ZUMALABE, ONDOAN JOSU LANDA, ONDOAN PELLO ZUBIRIA ETA ZUTIK IÑAKI URIA.

MIREN OSA GALDONA

Zerikusi gutxi dute duela ehun urte sortu zen *Zeruko Argia*k eta egungo astekariak. Izena ez ezik, maiztasuna, aldizkariaren jabetza eta edukiek eraldaketa nabarmena izan dute. Prozesu horretan 1980ko hamarkada azpimarratzea funtsezko ariketa da. 1980an langileek hartu zuten ordura arte kaputxinoena zen agerkari erlijiosoaren gidaritza, eta gogor borrokatu behar izan zuten egun eskuartean dugun ARGIAren lehen zenbakiak lortzeko. Joxemi Zumalabek, Joxe Mari Ostolazak, Josu Landak, Pello Zubiriak, Iñaki Uriak eta Jon Barandiaranek paper berezia izan zuten enpresaren jabetza eredu berrian. Euskarazko prentsa normalizatua egitea zuten amets, euskaltzaletasuna, elkartasuna eta aurrezaletasuna –teknologia berriak aukera gisa hartu zituzten lehen langileek– oinarrian hartuta.

Egun kooperatiba haren ideia errealitate bilakatu dela esateko moduan bagara ere, bihurgunez betetako bidea izan da: zortzi milioi pezetako zorrari aurre egiteko, hastapeneko lantaldea kazetari ez ezik irakasle edo itzultzaile lanean ere aritu zen; baliabideak ere urriak ziren, nahiz eta arlo teknikoan zituzten ezagutzak askorako balio izan zien; kooperatibaren sortze urtean 24 zenbaki baino ez zituzten argitaratu, eta abar.

Lan gogorrak, ordea, uste baino azkarrago eman zituen emaitzak. Urte gutxiren bueltan zorra kitatu, lantaldea profesionalizatu eta ARGIAren sostenguan lagundu duten bi enpresa berri eratu zituzten: Apika Informatika eta Antza Inprimategia.

Egun atzera begiratu eta eskerrak ematea baino ez zaigu geratzen. Hilabetekari erlijiosoaren lana beste batzuek betetzen baitute, baina nork ziurtatu diezaguke 1980ko hamarkadan eginiko lan guztiagatik ez balitz, gaur gaurkoz euskara hutseko astekari librea izango genuenik? ●

ARGIA JENDEA

FELIX SARASOLA

Lapur Handiak eramandako laguna



FELIX SARASOLA. 1992AN LASARTEKO TXARTEL HOTELEKO SUKALDEAN. ARGIAKO ARGAZKI ARTXIBOA.

JOSEBA SARRIONANDIA

Habanako Bonbilla Berdean omenaldia egin diogu Felixi Santo Tomas egunean, urtero bazkaria antolatzen zuen egun berean. Ruper Ordorikaren *Lagunaren heriotza* entzun dugu lehenengo, Luigi Anselmiren letrarekin:

"Lapurra sartu zaigu gaur etxean / guztion ixilean... / Oso trebea bide da / lapur zital hori, / ez baitu dirurik, / harribitxirik / edo holako ondasun hutsalik / eraman. / Gure altxor preziatuenera / jo du zuzenean / eta artoski gordetzen genuen / adiskide-bilduma tipitik / ale ordezkaezina / ostu digu".

Unai Muñoa eta Ander Lizarralderen bertsoak entzun dira, Jorge Romero irten da gero dezima batzuk leitzen, Ray Fernández *El ausente* abestu du, Daniel Chavarria beste lagun aurten ostuaren ipuina, *La tortilla escalonada*, Felixen antza duen Pepe Olavarría sukaldariari buruzkoa eta Felixi eskainia. Jade bikoteak modu hunkigarrian interpretatu ditu *Eperra* eta, Pancho Amat treseroarekin eta Rayrekin, *A caballo vamos pal monte*, Felixi gustatzen zitzaion son montunoa. Eta *Txoria txori*.

Bonbilla Berdetik irtenda, batek gogoratu du ezagutu zuela Felix aspaldian, sasoi behelainotsu hotzean, Muebles Intxausti dendako eskaparate argitsuko Belen bizian San Jose egiten, asto eta behi bizien alboan.

Beste batek Bermeoko atunontzia gogoratu du Afrika menbaldeko itsasoan, barkuko sukaldaria Felix, eta behin itsas kolpe batek ur zakarrera bota zuela. Felixek igerian jakin ez eta beltz senegaldar batek egin zuen kareletik salto. Soka bat bota zieten eta biak salbatu ziren.

Hala esaten zuen ez ziela fundamentu handirik antzematen ez erlijioari ez arrazismoari, baina bizitzatik ikasten jarraitu zuen Felixek, hala nola inmigrantea izatetik. Karibeko kosta atlantikoan jarraitu baitzuen beste barku batean eta behin, lehorreratzea otu eta New Orleansen geratu baitzen. New Orleansetik New Yorkera, eta bi-hiru urte eman zituen New Yorken, brasildar janariko jatetxean lanean, paperik gabe.

Orduan, betiko Amerikako Estatu Batuetan geratzea eta Euskal Herrira itzultzea erabakitzeko puntua heldu zitzaiola kontatzen zuen Felixek. Eta euskalduna zela erabaki zuela, ez jatorriz bakarrik, baizik eta euskalduna izan nahi zuela. Eta Usurbilera bueltatu zela, Mikel Laboa eta ARGIAkoekin, Jose Anton Arze eta Labatxikikoekin, Jose Luis Zumeta eta lagun zituen beste askorekin Euskal Herria egiteko egunik egun, eta mundua egiteko.

Euskal Herriko portuetako baforeek bezala, hara eta honak eginez, jakina. Kanarietako diskoteka batean lan egingo zuen. Baina gehiagok gogoratuko dute Tolosako Beti Alai jatetxean, Lasarteko Txartel hotelean eta, batez ere, luzaroan, Txitxardin Beltza jatetxean.

Habanan zegoela, 2001eko martxoan, loteria tokatu zitzaion eta Guanaboko uretan, oinak hondarpean zorua galdu eta itotzen hasi zen, lagunak ospatzen ari zelakoan ziren. Kubatar batek salbatu zuen. Felixek dena ematen zien lagunei, eta beltzei, eta kubatarrei, berari ere dena eman ziotelakoan.

Felixen etxea zen euskaldunentzat enbaxada Habanan. Nori ardura zitzaion Zulueta eta Cárcel izkinako jauregi erraldoi ederrustekoa, Felixen apartamendu txikia zabalik bazegoen!

Ustekabeko sorpresaren bat izaten zuen beti heldu-berriarentzat:

– Txipiroiak tintan jango dituzu!

– Karibean ez dago txipiroirik.

– Ez dagoela? Hortxe, itsasertzean erosi ditut ba nik.

Euskal enbaxada eta jatetxea, tabakorriaren merkatua eta batzorde bolibarianoa, San Mames eta organo orientalaren katedrala. Eta zorionaren filosofia, edozein izkinatan baitzegoen Felix bizitzaz harriturik eta pozik.

Aurreko uda hasieran, autoan eraman nuen Habanarantz. Ekaitz izan zen gau horretan eta apenas lo egin nuela esan nion.

– Nik ere ez diat lorik egin… –esan zidan.

Ni ekaitza mendebaldetik heldu zela, eta berak:

– Ez, Barakoatik etorri duk!

Nik metereologiaz eztabaidatzeko gogorik gabe:

– Baina, fuertea izan da eh…

– Ikaragarria!

Eta Plaiako 94 kaletik ia Vedadorako tuneleraino joan ginen solasean ni eguraldiaz eta bera gaueko larrutaldiaz.

– Gaur ere ezin izango diat lorik egin, baina trankilito.

– Ekaitza joan duk, Felix?

– Ez, etxean geratu duk, bihar hartuko dik autobusa Barakoara itzultzeko.

– Jode, Felix, ni eguraldiaz ari ninduan.

– Jujuju, hi haiz hi kalekumea!

Halakoa zen gure laguna, artoski gordetzen genuen adiskide-bildumako ale ordezkaezina. ●

Banaketa bidegabearen arkeologia

NAGORE IRAZUSTABARRENA URANGA
@irazustabarrena

Ponpeia, K.o 79. Vesuvio sumendiak botatako errautsek Erromatar Inperioko hiri hartako bizimoduaren xehetasunak gorde zituen, baita desberdinkeria sozial eta ekonomikoen aztarnak ere. Beste arkeologia gune zaharrago eta berriago batzuetan arrastoak hain ondo gorde ez diren arren, Michael E. Smith eta Timothy Kohler arkeologo estatubatuarrek Ponpeia eta beste 62 aztarnategi aztertu dituzte, komunitate horietan ondasunen banaketa nolakoa zen ondorioztatzeko eta *Ten Thousand years of Inequality* liburuan bildu dituzte emaitzak.

Horretarako etxebizitzen tamaina hartu dute oinarri. Berez, estatus ekonomikoa neurtzeko irizpide hori erabiltzea ez da oso berritzailea, baina azterketaren egileek antzinako 63 komunitate horietako bakoitzaren Giniren koefizientea kalkulatzeko erabili dute. Corrado Gini estatistikari italiarrak 1912an sortua, ondasun banaketaren desparekotasuna neurtzeko erabiltzen da datu hori, 0tik 1era doazen balioen bidez: 0 erabateko berdintasuna da eta 1, aldiz, ondasunen erabateko kontzentrazioa gutxieneko aberatsenaren eskutan.

Arkeologoek aztertutako aztarnategirik zaharrena Jerf el Ahmar da (egungo Siria), duela 11.200 urtekoa. Giniren koefizientea 0,12koa zen Eufrates ibaiaren ertzeko herrixkan. Ponpeian, aldiz, 0,54ra igo zen duela ia 2.000 urte. Eta 2016an AEBen koefizientea 0,81ekoa zen. Ondorioa garbia da: denborak aurrera egin ahala, ondasunen banaketan dagoen berdintasunik eza geroz eta nabarmenagoa da.

JERF EL AHMAR AZTARNATEGIA (SIRIA), DUELA 11.200 URTEKOA. HORI ETA BESTE 62 AZTARNATEGI AZTERTU DITUZTE HISTORIAN ZEHAR ONDASUNAK NOLA BANATU DIREN JAKITEKO.

Hala ere, Smith eta Kohlerrek osatutako grafikoan, goranzko joera duen marra horrek gorabeherak ditu. Esaterako, Egiptoko Kahunen, duela 4.700 urte, desparekotasuna 0,68koa zen, Ponpeiakoa baino handiagoa, eta K.o. 300. urte inguruan Teotihuacanen (Mexiko) 0,12raino egin zuen behera. Mexikon bertan, Tenochtitlanen, Giniren koefizientea 0,30koa zen oraindik europar konkistatzaileak iritsi zirenean. Handik aurrera, igoera nabarmena izan zen. Hortaz, ondasunen kontzentrazioa geroz eta handiagoa ez da soilik denbora kontua izan. Ikerlarien arabera, "gizarte bat teknologikoki zenbat eta aurreratuagoa egon, ondasunak orduan eta kontzentratuago daude". Alegia, teknologiak banaketa bidegabea eragiten duela.

Kontua da NBEren arabera 0,40tik gorako koefizienteak larriak direla "gizarteak nekez egin diezaiokeelako aurre aberatsen eta pobreen arteko halako polarizazioari", eta milaka urte batzuk badirela marra gorri hori gainditu dela. ●

KARL-GÖRAN SJÖGREN

Giza pandemia zaharrenaren arrastoak Suedian

Besteak beste XIV. mendeko Izurri Beltza eragin zuen *Yersinia pestis* bakterioaren DNA arrastoak aurkitu dituzte Suedian, Neolitoko hainbat nekazariren hezurretan. Hezurrak duela 4.900 urte ingurukoak dira eta, hortaz, historiako lehen giza pandemiaren froga dira. Goteborgeko unibertsitateko adituen arabera, izurria mende batzuk lehenago, duela 5.700-5.000 urte, sortu zen Itsaso Beltzaren iparraldean, eta merkataritza-bide berriek gaixotasuna Europa osoan eta Asiaraino zabaltzen lagundu zuten. Hala, gurpilari eta animalien trakzioari esker, nekazaritzaz –eta desberdintasun ekonomikoez– gain, bakterioak ere hedatu ziren. ●

MAITEMINDUTA AL DAGO MICHEL HOUELLEBECQ?



Urtarrilaren 4an argitaratu da Michel Houellebecq-en zazpigarren nobela, *Sérotonine*, eta publikatu bezain laster urteko fenomeno literarioetako bat bihurtu da Frantziako Estatuan, baita harago ere, itzulpenak azkar etorri baitira, joan den asteazkenean publikatu da gaztelaniazkoa. Argitaratu aurretik zen handia ikusmina, Houellebecq ez baita alferrik gaur egungo idazle irakurrienetako bat, bere nobeletan Frantziaz eta Mendebaldeaz egiten dituen gogoeta sarkastiko, probokatzaile eta polemikoak medio.

TESTUA | **GORKA BEREZIARTUA MITXELENA** @boligorria

Gainera, nobela honetan bazirudien zerbait berria zetorrela: betiko Houellebecq misantropoak bestelako aurpegia erakutsi zuen prentsa arrosan iazko irailean, irribarretsu agertzen zen Qianyun Lysis Lirekin ezkondu zen egunean –maitasun-istorio klasiko bat: munduarekin haserre dagoen idazleari buruzko tesia idazten ari den emakume gazte txinatarrak bere ikergaia ezagutzen du eta asuntoa aldarean bukatzen da, eszena komiko samarra bihurtuta–. Jende asko harritu zen ikusi zuenean azken hogei urteetan zibilizazio honen galbide ugariei buruzko nobelak idaztera dedikatu den egileak badaukala bere bihozñoa. Zipriztinduko ote zuen maitasunak haren lana?

Sérotonine irakurri ondoren galderak badauka erantzuna, baina pixka bat normandiarra da –edo galiziarra, hegoaldekoontzat–: bai eta ez. Alegia, Houellebecqen azken eleberria maitasun-nobelatzat jo dezakegu edo, zehatzagoak izateko, maitasunari buruzko nobelatzat. Baina gaia hori izanda ere, berean segitzen du eta aurretik idatzi dituen nobeletako elementu guztiak aurkituko ditu irakurleak gutxi gorabehera: bakardadea, tristezia, heriotza, harreman sozialen endekapena eta prozesu geldo bezain mingarri horren ondorioak, kontsumismoa, pornografia… Houellebecq bat irakurri duzunean, Houellebecq guztiak irakurri dituzu –baina hala ere, hurrengoa argitaratzen duenean leitzen bukatzen duzu, zerbaitengatik izango da–.

Idazlearen liburuetan ohikoa den moduan, fikziozko protagonistaren eta benetako idazlearen arteko antzekotasunak bilatuko ditu nobela irakurtzen duenak. Istorioak asko erraztuko dio hori: *Sérotonine* kontatzen duen pertsonaiak agronomia ikasketak ditu Houellebecqek bezala eta nobelaren hasieran emakume japoniar bat da haren bikotekidea –ez txinatarra, baina tira–; nahiz eta diferentziak ere badiren noski, adibidez, protagonista ze nazkatuta dagoen Yuzurekin –horrela du izena bikotekideak– etxe berean bizitzeaz, alegia, zerikusirik ez onddo-kapela jantzita ezkondu berria den idazlearen pozarekin –itxuraz behintzat–.

"Idazleak dio hau ala protagonistak?" jokoa proposatu ondoren, putzu agortezin horretan ihalozka hasten da *Sérotonine*, zerri bat lokatzetan bezain gustura, 40. orrialderako honelako paragrafoak utziz: "Francisco Franco, eztabaidagarriak izan daitezkeen beste zenbait ekintza politiko gorabehera, jo beharko litzateke mundu mailako xarmadun turismoaren benetako asmatzailetzat, baina haren obra ez da hor geratzen, espiritu unibertsal horrek, gero, jarri zituen benetako masa-turismoaren oinarriak ere (...) Francisco Franco egiazki turismoaren erraldoi bat zen, eta alor horretan berriz baloratua izango da azkenean".

Eskuin muturrari begi-kliskak egiteko erreparorik ez duen idazlearen iritzia da ala haren pertsonaiarena? Eta, bestetik, diktadore faxista baten ikuspegi aurreratua goraipatzen ari da, paragrafoaren azaleko irakurketa batek aditzera ematen duen moduan? Ala, kontrara, egungo eredu turistikoen –bai masiboa, bai "kalitatezkoa"– atzean dagoen faxismo ekonomikoa azpimarratzen? Ezin jakin. Segur aski, biak batera egiten ditu, anbiguotasun ideologikoa baita idazlearen marketako bat.

Kontsumo hedonistarekin biziki gozatzen duen protagonista baten aurrean gaude –Carrefourrek eskaintzen dizkion zortzi hummus barietateek ematen diote bizitzeko esperantza, abonamendu merke batekin ikus ditzakeen kirol-emisio guztiek–, baina era berean, laborantzan diharduen adiskide baten egoera larriarekin enpatizatzeko gai den norbait ere bada; bikotekidea leihotik behera botatzea serioski planteatzen duen norbait, baina gogortasun eta hoztasun guztiaren azpian, inoiz maitatu izan zuen eta maitatua izan zen norbait ere bai, esperientzia horrek ia bizitzeko gogorik gabe utzi zuen arren. Gizagaixo bat eta urde kabroi bat: gehienetan ez dira kontzeptu kontrajarriak izaten.

"Inor ez da zoriontsu izango Mendebaldean inoiz gehiago", dio pertsonaia batek nobelaren herenean-edo eta, tira, gutxi gorabehera hori da Houellebecqen mezua: ongizatearen Europa pikutara joan delarik, ez dago ihesbiderik, ezerk ez gaitu salbatuko, ez kontu korronteko diruak, ez kulturak, ez parametro guztien arabera erakargarria den bikotekide asiar berriak, ez ikusmira inbidiagarria eskaintzen dizun pisu horrek, ez Mercedes bat gidatzeak, ezta etxalde batera bizitzera joateak ere –izan ere, EBren nekazaritza-politikek asko zaildu dute azkeneko hori: lehen sektorearen hondoratze behartua da nobelaren gaietako bat–. Ez dago ezer egiterik, gauzak nola kiskaltzen diren ikustea besterik, eta gauzekin batera gu geu, noski.

Ezer oso berririk ekarri gabe, ez aurreko liburuekiko, ezta, orokorrean literaturarekiko ere –horretan Antoine Compagnon saiakeragilearekin ados egon beharra dago: duela urte pare bat *El País* egunkarian zioenez, "Houellebecq, Despentes edo Édouard Louis bezala idazteko ez genituen behar Proust eta Céline", alegia, mota honetako nobelagintzarako ez dira beharrezkoak XIX. mendetik aurrerako berrikuntza estilistikoak–, Houellebecqek jarraitzen du orri-pasagile ona izaten eta beharbada aurreko liburuetan ez bezala, istorio honi suspentse puntu extra bat ematea lortu du, spoilerrak saihesteko hemen kontatuko ez dugun eszena batean bereziki.

Urte berrirako zure buruari egin dizkiozun promesa faltsuak traizionatzen lagunduko dizun nobela baten bila bazabiltza, *Sérotonine* aukera ona da: porrot egindako esperantzei eskainitako azken *hit* literarioa. ●

KILLERKUME

Gure hizkuntzaren barruko hizkuntza berritu behar dugu etengabe

Beren kaioletatik ihesiz, kaiola berriak doaz eraikitzen, berriz suntsitzeko. Kaiolatze horretan dihardute Joxean Rivasek eta Mikel Vegak 2012az geroztik. Killerkume sortu zuten orduan, Mirage, Loan edo Hauts taldeak behin betiko itxita, baina bereziki, hamaika solasaldi eginda. Elkarrizketa egitean ez zekiten 2018ko Bilbo Hiria Musika Lehiaketako lau sari lortuko zituztela. Ez da hau, beraz, sarien aitzakian egindako topaketa.

TESTUA I **IBON RODRIGUEZ** @tiutaka

Taldea osatzea erabaki zuten bakoitzari arrotz zitzaion tresna bana hartuta: Joxeanek, perkusioa –gitarraren ordez–; Mikelek, gitarra –baxuaren ordez–. Erosotasun-guneetatik ihes egiteko abiapuntu bortitza jarri zioten beren buruari. "Autodidakta naizenez, automatismo gutxi daukat perkusioarekin, nire erosotasun-guneak sortzen ditudan arren, nahitaez. Banekien erraztasuna izango nuela erritmoetarako. Baina aldi berean zerotik abiatu nahi nuen", dio Joxeanek. "Nire burua erosotasunetik atera nahi nuen, nire burua izorratu. *Reset* egin. Eta saiatzen naiz filosofia horri eusten. *Hasiberri* kontzeptuaren oso aldekoa naiz, freskotasunarena. Estimatzen dut hori, batez ere besteengan. Horixe ari naiz ikusten orain Mikelengan, eremu berri bat ari delako deskubritzen, elektronikarena, eta oso modu pertsonalean". Joxean bateriaren atzean zuzenean ikusi duenak ere erraz atzemango dio darion berotasuna, eztandarako grina.

Mikel elektronikaren bidez ari da, beraz, kaiola berria eraikitzen: "Ni oso astiro jotzetik nentorren, musika pisutsua eta riffez josia. Kontundentzia bilatzen genuen, ez ñabardura. Hauts-en Earth maite genuen, drone metala, geldotasuna. Baina noise-rocka betidanik izan dut maite (Amphetamine Reptile, Lighting Bolt…). Banuen buruan halako talde bat egitea, oldarkorra, zaratatsua, makarra. Progresiboa izan da gure eboluzioa. Inprobisazioa ere horregatik iritsi zen. Eta orain sinteak, sekuentziadoreak. Bateria eta gitarraren tinbreetatik atera nahi genuen. Frekuentzia grabeagoak edo bestelakoak sartu nahi genituen. Jakin-minagatik ere bai: elektronika eta jazz asko entzuten dugu, rocketik gatozen arren".

Etiketa ugaritan hatz bat sar zezaketen arren, Killerkumeren koordenadetan jazza sartzeak aldrebestu zuen taldearen iparra. Joxeanek dioenez "jazza bera oso estilo itxia da. Niri ez zait bereziki interesatzen. Free-jazza bai, ordea, eboluzionatu baita arau guztiei iskin eginez eta estilo guztiekin nahasiz". Mikelentzat zabalagoa da: "Inprobisazioa edo eredu itxietatik ihes egitea. Tinbre eta dinamika ezberdinak, kontrasteak sortzeko gaitasunak liluratzen nau jazzetik. Abentura bat da. Arreta handiagoa eskatzen du".

Eta nola heltzen da talde bat erabaki hori hartzera? Eztabaida filosofikoen ondorio? Ez. Leherketa bat gertatu zen Valentzian. Kontzertu baten erdian Joxeanek barrenak askatu zituen, eta Mikel egoera deserosoan jarri zuen. Hau haserretu egin zen. "Lokalean inprobisatu ohi genuen, baina ez genuen zuzenekoan egin inoiz". Transgresioa, hortaz, talde barruan gertatu zen, publikoa deseroso sentiarazteko grinatik honatago. "Jakina. Gaur egun ere kontzertu bakoitza modu ezberdin batez hasten saiatzen naiz, Mikelek espero ez duen modu batean, bere erreakzioa probokatzeko. Hizkuntza, kodea, maneiatzen dugu, baina bilaketa horri ekin behar diot beti. Testuingurua

freskatzeko. Hizkuntzaren barruko hizkuntza berritzeko".

Leherketaren albo-kalteak lehenengo diskoko (*Trautzer Blaster*, 2014) kantek pagatu zituzten. Bertan hil ziren. Ordudanik, kantak hezurdura hutsa dira –eta ez edonolakoa–, baina mamia gainontzekoan dago. Kantetan inprobisazioa txertatzeak bizitasun berria eman die, bizi luzea.

Oharkabean, hiru bira egin dituzte Europan, ia errepertorio bera ardatz hartuta. Ohiko ingurunetik ateratzeak baino, biran egoteak jartzen du talde bat sasoiko, eguneroko zuzeneko dinamikak. Eta hala, 8.000 kilometro baino gehiagoko bira baten erdian goiz bat libre zutela baliatuta, Winterswijk-eko (Herbehereak) White Noise estudiora azaldu ziren, zuzeneko saio bat grabatzera, Don Vito, Staer, Dead Neanderthals miretsiek egina zuten bezala. Gerora, taldearen hirugarren lan luzea bihurtuko zen (*White Noise Sessions*, Repentino / Gaffer, 2018). Trasteak jaso eta Alemaniako Monchengladbachera abiatu ziren gauean jende aurrean berriz jartzera.

Zer aurkitzen du taldeak Euskal Herritik kanpo? "Frantziako edozein tabernazulotara joan eta nabaritzen da ez dutela jasan 40 urteko atzerapen kulturalik. Areto gehiago dago, autogestionatuak. Oso programazio potentea dutenak. Iberiar penintsulan oso zirkuitu interesgarria ari da ehuntzen, tantaka: Porton, Lisboan, Galizian, Don Beniton (Extremadura), Benicarlon (Herrialde Katalanak), Bartzelonan, Madrilgo La Faena II... Elkarte bidez funtzionatzen dute eta hainbat lagun biltzen zaie emanaldiro. Babesa dute". Gurean batzuetan aurkitzen ez duten arreta eta errespetua aurkitzen dituzte. "Badakizu kontzertu batean molestatzen baduzu, norbait etorriko zaizula isiltzeko eskatzera (horrek dakartzan kontraesan etiko guztiekin)".

Argi dute urtetako inurri lanean dagoela gakoa: "Benicarlon lortu dute 100 lagun egotea noise kontzertuak ikusten. Liluragarria da. Heziketa dago, zuzeneko musikak zer esanahi duen transmititu diote elkarri, ez dira kulturetak, ez musikologoak. Esperientziak duen balioa zaintzen dute, konturatzen dira talde bat datorkiela herrira, beste herri batetik datorrena eta beste batera doana; interes handiz entzuten dute, errespetuz, eta ondo tratatzen dute. Giza faktore handia dago tartean".

Euskal Herriko gune autogestionatuen zirkuituari indartsua deritzote. Laudioko Orbeko Etxea, Azkoitiko Mataderoa edota Bilboko Le Larraskito Kluba nabarmendu dituzte. "Bitxia da ikustea belaunaldika berritzen dela halako gune asko. Batzuek aurrekoari eusten diote, beste batzuek ez. Orain beste estetika batzuk daude, beste erretorika bat, indartsuagoak rocka guretzat zena baino. Oso ondo dakite maneiatzen internetek ematen dien informazioa. Performatiboki, pisu gutxiago du *tresna organikoak* jotzeak". ●

LIBURUA

Interesgarri jartzen



EGUNERO HASTEN DELAKO
RAMON SAIZARBITORIA
LUR, 1969

TESTUA | **ARITZ GALARRAGA** @aritzgalarraga

Ibilbide literario bat ere noizbait hasten delako, hemen aletu ditugu Hasier Etxeberria, Anjel Lertxundi, Aingeru Epaltzaren lehenengo emaitzak –ibilbide literario luzeko hiru idazle aipatzearren–. Ramon Saizarbitoriarenak *Egunero hasten delako* eleberri laburrean du abiapuntua, 1969an, aurten 50 urte. Eta ospatzen beharko genuke honezkero. Ez bakarrik euskal eleberrigintzaren ordularia garaiko korronte literarioekin sinkronizatu zuelako; gaur egunetik ere –oroi, 50 urte–, irakurketa erabat freskoa eskaintzen digulako orobat.

Gaurkotasunik batere ez duela galdu, alegia. Gaiengatik adibidez, abortua, noski, gai zentrala, gainditua irudi luke, baina gogoratu Nafarroako kasua, herenegun normalizatzen hasia. Migrazioa, present hemen, bigarren plano batean nahi bada, baina mende erdi beranduago bizi-bizi dauden ustelak agerraraziz: "Gero eta etorkin gehiago ari gara hartzen eta jendea ez da kontent. Inbasioa omen da". Eta gaiez aparte, kontatzeko moduagatik adibidez, bi lerro bereizi, bata protagonistari dagokiona: Gisèle Sergier, hogeita bi urte, kirrua, begi urdinak, luzea eta mehea; "beste klase batekoa da", "beti daki behar dena egiten". Haurdun geratu eta abortatu arteko borroka ezagutuko diogu. Eta beste lerroa, bakarrizketa, itxuraz neskaren istorioarekin zerikusirik ez duena, baina baduena, sartu-irtenean baitabiltza ideiak, esaterako eleberriaren izpiritua harrapatzen duena: "Nik mila aldiz nahiago dut oraingo gazte hauen errebeldiaren arriskua gure garaikoen antzutasuna baino".

Irakurleak eskuragarri, 2007ko Erein argitaletxearen poltsiko edizioa du, zeinak Saizarbitoriak berak idatzitako hitzaurre argigarria dakarren, nobela atera zen garaiko gure panorama zertan zen erakusten diguna. Eta aldaketa batzuk, idazleak han eta hemen sartu dituenak, baina kontuan izanik, "lehen ere irakurrita lukeen norbaitek oraingo bertsio hau berrirakurtzeko lana hartuko balu, ez litzatekeela konturatuko egin ditudan aldaketez".

Gisèle bezala eleberria, aurrera doa, adoretsu, euskal eleberrigintza, galdutako konfiantza berreskuratu batekin. Biharko bizitzaren aurrean esperantzatsu, bizitzera. Bizitza egunero hasten delako. Euskal literatura ere noizbat hasten delako interesgarri jartzen. ●

DANI BLANCO

RAMON SAIZARBITORIA ZABALETA
IDAZLEA
DONOSTIA, 1944



DISKOA

Une goxoak, hunkigarriak

ALEX CHOUZA

PETTI ETA ENEKO DORRONSORO, URRIAREN 20AN BONBERENEAN, DISKOA GRABATZEKO EGIN ZUTEN KONTZERTUAN

BONBERENEAN ZUZENEAN
PETTI
BONBERENEA EKINTZAK, 2018

TESTUA | **JOXI UBEDA GOIKOETXEA**

Hil berria zen aitari eskainitako *Awañak* diskoa jendaurrean grabatu eta hamar urte pasatu direnean, zuzenean grabatutako beste disko bat kaleratu du Pettik. Kanta batzuetan bakarrik aritu da, gitarra akustikoarekin, eta beste batzuetan Eneko Dorronsoro soinu jotzailearekin. Aipagarriak dira Enekok eskusoinuarekin egiten dituen doinu eta marrazki politak, ederki apaintzen eta osatzen baitituzte kantak.

Bakarka edo Etxeko Uzta taldearekin, Petti bera izan arren, bere kantetan giro berezi bat sumatzen da bakarrik jotzen dituenean, edo musikari bakar baten laguntzarekin. Kantek ikus-entzulea beste modu batean ukitzen dute. Une goxoak izaten dira, hunkigarriak.

Grabazioa egiteko kontzertua 2018ko urriaren 20an egin du Tolosako Bonberenean, *Awañak* diskoarekin egin zuen bezala. Bere etxean, askotan jo baitu Bonberenean. Gustura, kontzertuan egon zen jendearen berotasunarekin. Lana ederki biribiltzeko, nahasketak eta masterizazioa Berako Mik estudioan egin ditu Maikel teknikariak.

Hamalau kanta entzun daitezke diskoan. Horietako gehienak, aurretik argitaratutako kantak dira, beste modu batean interpretatuak: *Hotzikarak* (2016) diskoan dauden *Ez barkatzen, Ni naiz* eta *Azken Aetzaren balada*; *Astirtitan* (2014) diskoko *Erramurik gabeko gauak; Bakarrik eta libre*. *Imanol Urbietaren kantak* (2013) bildumako *Ranroberran*; Barrence Whitfieldekin 2009an kaleratu zuen diskoko *Solasaldia*; *On* (2007) diskoko *Xorieri mintzo zen* eta *Oasia*; *Arrazoiak* (2001) diskoko *Dirdira* hori; eta *Amets bat* (1999) bere lehen diskoko *Perika* eta *Zeru infernu*. Halaber, bere ibilbidearen hasieran sortu zuen *Pshikoburmuin* kanta ere jo du.

Aspalditik ezagutzen dugun arren, Pettik beti harritzen eta liluratzen gaitu. Handia da, musikari eta abeslari gisa. Bere ahotsa, gitarra jotzeko duen trebetasuna, bere nortasuna. Erraietatik aritzen da, grinarekin, indartsu edo leun, kantak edo uneak eskatzen dionaren arabera, urtetako eskarmentuak ematen dion gaitasunarekin eta erraztasunarekin, eta horren guztiaren emaitza dira blues, rock eta folk kutsuak dituzten bere kantak, bizitzako gazi-gezen ingurukoak: ederrak, zirraragarriak. ●

MONIKA DEL VALLE / FOKU

Betikoa betikotuz

RUPERREN KONTZERTUA

NOIZ: Abenduaren 15ean.
NON: Bilboko Kafe Antzokian.

TESTUA | **GORKA PEÑAGARIKANO** @gorkap34

Urterokoa bilakatu den arren, ez da beti gauza bera izaten. Ordorikak Kafe Antzokian jotzen duen aldiro, jakin badakigu denok: gainean ditugu Gabonak. Bagenekien gau berezia izango zela, larunbateko eta igandeko kontzertuetan zuzeneko diskoa grabatuko zelako, baina baita ere, Bilboko Kafe Antzokia ospakizunetan zelako: 23 urte betetzen zituen. Urteak joan eta urteak etorri, Ruper eta ruperzaleak bertan izan diren 23 urte.

Berriki argitaratutako *Bakarka* diskoa zekarren esku artean Ordorikak, baina ez zen bakarka aritu oholtza gainean. Bost bat aldiz aurkeztu zizkigun taldekideak izan zituen bidelagun. Ia berrogei urte dituen *Herdoilarena* abestiarekin ekin zioten saioari, eta haren ostean *Martin Larralde* abestu zen. "Abestu zen" diot, ikuslegoan ez baitzen kanta ezagutzen ez zuen inor.

Gustura aritu ziren oholtza gainean. Ordorikaren irribarrea behintzat nabari zen saio osoan zehar. Josu Muguruza oroitzeko tartea izan zuen, hari eskainitako *Ez da posible* kantaren bitartez. Baita ere, betiko legez, *Egunkaria*ren itxieraren harira egindako *Zaindu maite duzun hori* abesti entzutetsua. Ustekabez harrapatu gintuen, hala ere, Bob Marley zenaren *Redemption song* abestia gureratu zuenean. Melodia aditu orduko ingelesez abestuko zuela espero zuen nire inguruan zen batek, baina ez, euskaratu egin zuen: "Kanta dezagun, askatasun kanta".

Bi aste zeramatzaten sarrerek agortuta, eta ikusten zen: jendez lepo zen Antzokia. Kontzertu goxoa izan zen jendearen gozamenerako. Txalo zaparrada asko izan ziren, hiruzpalau aldiz joan baitziren atseden hartzera. Errepertorio luzea du Ordorikak –nola ez, 17 disko ditu–, eta jendaurrera itzuli eta *Fas Fatum* bezalako kanta entzutetsu, ospetsu eta zaharrekin erantzuten zuen. Tartean izan ziren *Beltzarana* eta *Berandu dabiltza* abestiak. Azken honekin, espero bezala, amaitutzat eman zuen kontzertua. Gitarra soinetik kendu, lurrean zutik jarri eta bi eskuak bertan zituela, ikusleon txaloen artean ito zen. Maitekiro agurtu gintuen Ordorikak, ziur asko, Antzokiak urteotan guztiotan eskainitako maitasuna eskertze aldera. 23. negua du Antzokiak, eta Ruperrek, 23. negua Antzokian. ●

Hitz gezidunak



Sudokua

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

	3			6	4	9		8
9			3	5				
						2	3	
		1	9					5
	4	9	5		1	6	2	
3					6	1		
	1	3						
				2	3			6
4		6	7	1			8	

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

1. Opa izan, desiratu.
2. Ipurdiak.
3. Agian, akaso.
4. Tentel, motel.
5. Ezetza adierazi.

EBAZPENAK

5X5:
1. OPATU
2. POPAK
3. APIKA
4. TAKET
5. UKATU

1	3	7	2	6	4	9	5	8
9	8	2	3	5	7	4	6	1
5	6	4	1	9	8	2	3	7
6	7	1	9	3	2	8	4	5
8	4	9	5	7	1	6	2	3
3	2	5	8	4	6	1	7	9
2	1	3	6	8	5	7	9	4
7	9	8	4	2	3	5	1	6
4	5	6	7	1	9	3	8	2

	M		P		A		T		O		A		Z
J	A	S	A		G	I	B	E	L	A	S	M	O
	P	O	R	D	O	I		G	A	U	T	A	R
T	A	R	T	A	R	I	K	A		Z	I	G	A
		G	E						J	A		N	B
E	R	O								P	E	O	I
	E	R	I						P	E	L	L	O
P	P		P							Z	E	I	A
	A	K	I		N		J		J		K	A	
E	R	L	A	T	I	B	I	T	A	T	E		Ñ
	A	U	P	A		O	N	U	R	A	T	S	U
E	Z	B	A	I	A	N		L	E	Z	A	M	A

Maialen Moreno

ISTORIO BILKETAN

"XVI. mendeko istorio batzuk nik orain jaso ditut ahoz eta euskaraz "

Mendez mende, belaunaldiz belaunaldi kontatu izan diren istorioak biltzen aritu da Maialen Moreno Zubeldia. Bi urtez Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoan gaindi ibilirik, guztira 300 ipuin tradizionalekin bilduma osatu du. Aberastasun hau esku artean, ipuinen artean zein beste ikerlarien bildumekin konparaketak egiten aritu da. Baionan eman berri duen hitzaldia estakuru harturik, ikerketa honen ondorioak azaldu dizkio Argiari.

TESTUA I **JENOFA BERHOKOIRIGOIN**
ARGAZKIAK I **ISABELLE MIQUELESTORENA**

AITZINEKOEN LANARI SEGI

"Euskal filologia ikasketetan nintzela, Barandiaran, Azkue eta beste batzuen istorioak irakurri genituen. Oso politak iduritu zitzaizkidan, euskara oso aberatsean idatziak, eta pentsatu nuen beharbada oraindik kontatuko zirela horrelakoak. Zortea ukan nuen, oso kontalari on batekin topatu nintzelako, Azkaingo batekin. Etxe batean hainbeste istorio biltzen baziren, oraindik ere horrelako asko izanen zirela pentsatu nuen. Tiraka-tiraka 300 istorio bildu nituen"

Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako ipuinak bildu dituzu. Euskal Herriko beste eremukoez ezberdina da horko ipuindegia?
Ipuin tradizionalak badira denetan, baina bildu ditudan batzuk bereziak dira edo behintzat hegoaldean ez daude bilduta. Arrazoia ez dakit zein den: besterik gabe, ez direlako bildu, edo bertakoak direlako, beste tradizio bat daukazutelako. Besteak beste, ikusi dut Frantziako Erdi Aroko fabliaux-etan antzeko gaiak tratatzen zirela. Poggio Bracciolinirenlana ere aztertu dut, italiarra zen, latinista eta horrek bildu zituen Italian latinezko istorioak. XVI. mendean jasotako istorio batzuk nik orain jaso ditut ahoz eta euskaraz! Hori zait egiten bitxiena eta azpimarratu nahi izan dut: badagoela tradizio bat, ahoz kontatutako istorioak badaudela, eta harrigarriena, batzuk orain ere kontatzen direla.

XVIII. mende erdialdean hasten da ahozko ipuinen bilketa. Zergatik?
Europa osoan izandako fenomeno bat izan zen, ahozko literatura biltzeko interes bat agertu zen, batez ere Grimm anaiek ezagutarazi zutena Alemanian. Hemen ere, kanpotik etorritako Cerquand eta Webster hasi ziren batez ere hemengoaz interesatzen.

300 bat ipuin bildu dituzu.
Nafarroa Beherean, Zuberoan eta Lapurdin ibili naiz, adineko jendearekin, istorioak kontatzeko zaletasuna dutenekin. Adibidez, Donibane Garazin astelehenez, merkatuaren inguruan batzuk biltzen dira eta istorioak kontatzen dituzte. Hori momentu pribatu bat da, lagun artekoa eta ni kanpokoa izanez, horretara sartzea zaila izan zait artetan. Demagun, banekien istorio kontalari on bat bazela baina ez zuen onartu nirekin biltzea. Beste batzuk galdetu zidaten beraien izenak ez agertzea.

Zein eremutan kontatzen dira?
Kontalari batzuek esaten didate beraien etxean jaso zituztela. Baina ipuin horiek ez dira gordinak, horiek gehia-

ELKARTZEKO UNEAK GUTITUZ DOAZEN HEINEAN, AHOZKO LITERATURAK TOKI GUTIAGO DUELA DIO MORENO ZUBELDIAK

go lagun arteko giroan kontatzen ziren nik uste. Donibane Garaziko kontalari batek taberna zuen eta erraten zidan han asko entzun zituela.

Errealistak eta miresgarriak sailkapena egiten duzu. Zein dira nagusi hemen?
Eguneroko biziko pertsonaiak (apaizak, medikuak, senarrak, alargunak...) agertzen diren istorioak dira errealistak, miresgarriak berriz deabruaren gisako pertsonaiak dituztenak. Nik gehien-gehienak bildu ditudanak errealistak dira.

Irri asko badela ohartu zara. Ze umore mota da?
Ipuin errealistetan bi motatako umorea bereizi dut: batzuk dira gordinak, sexu kontuak dituztenak eta besteak eskatologikoak deitu ditudanak, kaka, putzak eta puzkerrak aipatzen dituztenak. Sexu kontukoek hiru ezaugarri zituztela ohartu naiz. Batetik, transposizio poetikoa deitu dudana. Sexu kontuko gauzak eta ekintzak bere izenez ezin dira deitu, deskribatzen dira. Adibidez, *Müthila eta neskatua* deitu istorioan, etxeko nagusiak ohera joan ziren eta etxeko lanetan zebiltzan neskari eta mutikoari, oherakoan, sua itzaltzeko agindu zieten. Denbora baliatu zuten jolasteko, neskatoa etzan zen zakuaren gainean, mutikoa gainean eta konturatu ziren zakuaren mutur batek sua hartu zuela. Neska Biarnokoa zen eta esan zuen: "*Lou sac! Lou sac!*", eta mutilak erantzun "Zer luzak? Dena hor dun!". Jolasa deskribatzen da, baina inoiz ez da izendatzen. Beste ezaugarri bat da inoiz ez direla deskribatzen maitale sentsazioak edo maitasun sentimenduak. Azkenik, inozentzia itxurarena, neskek ematen dute ez dakitela ezer sexuari buruz.

Kontalari gizonezkoak ala emakumezkoak kausitu dituzu?
Gehienak gizonak izan dira. Joan naizelarik kontalarien bila, gehienetan gizonengana bidaltzen ninduten.

Iraganean?
Etxean kontatzen zenean denetarik egonen zen.

Ipuin anti-klerikalak ez dira anitz bilduak izan.
Barandiaran, Azkue... Askotan istorio bilketan aritu zirenak eliz-gizonak ziren, beraz beharbada ez zuten galdetuko gai horiei buruz; eta alderantziz ere, jendearengana hurbiltzen zirenean, jakinik apaizak zirela, ez zituzten kontatu nahi izango horrelako istorioak. Aspalditik hor diren ipuin tradizionalak dira, baina ez daude jasota.

Zer ekar diezaieke ipuin horiek XXI. mendeko ume zein helduei?
Ez dakit ikasi eta pasarazi behar ditugunik! Nik bildu ditut gustukoak neuzkalako, euskara aberatsean direlako eta interesa dudalako. Europa mailan, beste hizkuntza batzuetan ere jaso dira eta euskaraz ere aurkiturik, bildu nahi izan ditut eta konparaketak egin. Hortik aurrera ni ez naiz fitsik inori esateko horiek ikasi edota irakurri behar direla. Bestalde, elkarbizitza ere aldatzen ari da, geroz eta gutiago elkartzen gara, orduan ahozko literaturak ere geroz eta toki gutiago du. ●

BIDALI ZURE HARRIKADAK: **BERANDUEGI@ARGIA.EUS**

Amurrioko baserriari tiro egin zion polizia: “Probokatu egin ninduten”

Pistolarekin tiro egin zuen Espainiako polizia ohiak adierazi digu bere burua defendatu besterik ez zuela egin. “Mendian gaztainak biltzetik nentorren, eta bertatik pasatzera nindoala jakitun, baserriaren atarian mezu iraingarria jarri zuten jabeek: ‘Kontuz txakurra’. Urteetan sufritu behar izan dugu irain hori, eta bake garaiotan berdin jarraitzea ez da bidezkoa. Demokrata orok egingo lukeena egin dut, justiziaren eta elkarbizitzaren alde aletxoa jarri”. Armarik erabiltzeko baimenik ba ote duen galdetuta, mesfidati begiratu digu: “Herriko Santik, politikari sozial-demokratak, esan zidan polizia batek sekula ez diola polizia izateari utzi behar, are gutxiago arriskua edozein hesiren atzean gordeta dagoenean”.

SAREAN ARRANTZATUA

Txiki biliki, Bilbo handi

~~Kafe~~ Marmitako denontzat

“Atxikimendu-bonoa” sortu dute, euskal celebrityek aldarrikapen politikoak egitea errazteko

Kultur eta kirol munduko aurpegi ezagunek aldarrikapen politikoekin bat egitea errazteko, “Atxikimendu-bonoa” sortu dute Euskal Herriko hainbat eragilek. “Ideia sinplea da”, esplikatu du Txintxo Garmendiak, ekimenaren bultzatzaileetako batek: “Beti jende berarengana jotzen dugu antolatu dugun zerbait aldarrikapen zabala dela adierazi nahi dugunean. Bono honekin lortuko dugu euren babesa krediduan jasotzea eta pixkanaka administratzea, aldiro bertsolari, futbolari, sukaldari eta beste alorretako euskal celebrity-ekin kontaktatzen ibili beharrean”. Atxikimendu-bonoa eskuratzen duen pertsonaia ezagunak (antolatzaileen esanetan ez da “oso ezaguna” ere izan behar, “pixka bat ezaguna” izatearekin nahikoa da) dagoeneko babestuak izango ditu eskualde mailako lau manifestazio, urteroko presoen aldekoa eta Gure Esku Dagoren hurrengo mobilizazioa. Euskaraldiaren hamaikakoan postu bat ere konbalidatzen da bonoarekin.

Ø200

SLOW · KAFETEGIA

BERTAKOA · GARAIKOA · EKOLOGIKOA
GEUK PRESTATUA · ERANTZUKIZUN SOZIALA

Altuna baserria · Arrillaga Txiki baserria · Basatxerri · Behieko Sabekoetxea · Biok gazta
Bodegas Lezaun · Carlos Petrina · El Alcaraván · Ertxieko · Euskal Herria Esnea
Euskal Untxia · Goi Eko Haragia · Karabeleko · Goiti okindegia · Gumendi
Larreta Esnekiak · Lur Lan · Lurrarte · Mahala · Nabarreko · Orexa gazta
Pikunieta baserria · The Loaf · Tolosako Merkatua · Urrullo agroaldea · Zalmendi

---

ORDUTEGIA | Astelehenetik ostiralera | KAFETEGIA 07:00-17:00 | JATETXEA 12:30-15:20
Hernani, Gipuzkoa | 943 265 022 | www.diametro200.com

ATXEGA JAUREGIA
jatetxea

Aitzezarra,1

Zumartegi industrialdea

✆ 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com